



Kataluniako independentziaren bidea

Herritarren indarra eta alderdien batasuna

- **Hala Bedi** Euskara hutsezko irrati katea abiatzear da
- **Carrero Blancoren hilketa** Orduko antifrankistek esan zutena bildu dugu
- **Gipuzkoako IAT greban** Errebisioa behar duen zerbitzu publikoa
- **Frédéric Duhart** «Betiko produktuak *delicatessen* bihurtzea ez da gertuko laborantza, lapurreta da»

Larrun

182

www.argia.com/larrun



Dolores Juliano

Antropologoaren
begirada feminista



Datorren astean



Azaleko argazkia:
ANC / JORDI VENTURA
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaita Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko abenduaren 22a, 2.396. zenbakia

ASTEKO GAIA

ERREFERENDUMA KATALUNIAN Sinfonia armoniatsua konposatzen dihardu gizarte zibilak. PATXI LARRION / 4

- **ARNAU CARNÉ:** «Aldaketa sozialik gabe ez dago nazio burujabetzarik». AXIER LOPEZ / 6
- Independentzia egongo da, ez baita erreferendumik egongo. MANUEL DELGADO RUIZ / 8
- Eliteek ordainduko dutena. RAFAEL NADAL I FARRERAS / 9

PERTSONAIA

FRÉDÉRIC DUHART: «Janaria identitatearen ispilua da». SUSTRAI COLINA / 10

GAIAK

HALA BEDI IRRATIA Hala bada, libre bedi. URKO SAENZ DE BURUAGA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

UKRAINAN JOKO ZIKINA ASIER BLAS MENDOZA / 20

'EUSKARAK 365 EGUN' IÑAKI MARTINEZ DE LUNA / 22

IFRENTZUA ETA AURKIA JOXE IRIARTE, BIKILA / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Ez dago emakumerik. KATTALIN MINER / 22

BERTSO BERRIAK IKEA Baionan. MADDI SARASUA LASKARAI / 23

ERDIKO KAIERA

ANTTON ARANBURU: «Talentu asko dago, baina gizarteratzeko espazioak falta dira». LANDER ARRETXE BEREZIARTUA / 24

ARGAZKILARITZA GARAIDEAREN ZENTROA

Zaleen eta profesionalen topaleku. MYRIAM GARZIA / 26

BERTSO TXAPELKETA NAGUSIA Finalik onenetako bat.

IÑAKI GURRUTXAGA ZUBIMENDI / 28

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ / 30

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 31

IHESI MAÑARIA-ABADIÑO (BIZKAIA)

Saibi, Urkiolako behatoki txikia. IDOIA GARZES / 32

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36

ALEA Dantza egizu niretzat. MYRIAM GARZIA / 37

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 38

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 39

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

TERMOMETROA

FRANKISMOAREN AMAIERA Carrero Blancoren hilketaz zer esan zuen oposizioak? JOSU CHUECA / 41

GIPUZKOAKO IAT-EN GREBA Errebisioa behar duen zerbitzu publikoa. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 49

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 49

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Sinfonia harmoniatsua konposatzen dihardu gizarte zibilak

Patxi Larrion *Espanya contra Catalunya* sinposioan harrapatu du erreferendumaren data eta galderak jakinarazi diren momentuak. Historialarien irakurketak eta kaleko giroa ekarri dizkigu kronikan. Arnau Carné Endavant alderdiko kideak ezkerreko ikuspegitik azaldu dizkigu prozesuaren argi-itzalak. Eta prentsako analisietik Manuel Delgado Ruiz eta Rafael Nadalen i Farrerasen artikuluak hautatu dizkizugu.

| PATXI LARRION |

GOVERN.CAT



“AUKERAN galdera bakarra nahiago nuen, baina galdera adostua da eta gainera bi galderen formula intelgentea da” hitz hauek jaso nituen abenduaren 12ko arratsaldearen hasieran Jordi Fernandez-Cuadrench historialariaren ahotik. J. Fdez-Cuadrench ERCko militantea izateaz gain, *Catalunya contra Espanya* sinposioaren batzorde antolatzaileko partaidea da. Sinposioa Centre d’Història Contemporània de Catalunya eta Societat Catalana d’Estudis Històrics erakundeek antolatu dute eta Generalitateko Lehendakaritza sailaren sostengua izan du. Francesc Homs izan zen sinposioa abiatu zuenetako bat: aski ongi neurtu zituen bere hitzak, profil politikoa eman zion ekitaldiaren hasierari. Pentsatu nahi dut Homs lehendakaritza kontseilariak (CDC) jakinen zuela hitzaldia amaitu eta gutxira Artur Mas Generalitateko lehendakaria, Oriol Junqueras (ERC), Ramon Espalader (UDC), Joan Herre-

**Artur Mas (CiU)
Generalitateko
lehendakaria, ERC,
UDC, ICV eta CUP
alderdietako
ordezkari politikoein
batera Generalitateko
egoitzan 2014ko
azaroaren 9ko
erreferenduma modu
ofizialean iragartzen.**

ra (ICV) eta David Fernandez (CUP) ordezkari politikoein batera Generalitateko egoitzan izanen zela 2014ko azaroaren 9ko Erreferenduma modu oficialean iragartzen.

Sinposioan, arratsalde partekoan, une historikoa bizitzen ari zirela antzematen zen parte-hartzaileen solasetan. Inoiz anbiguotasun hitza entzun banuen ere, irribarre gozoa marrazten zen denen aurpegietan. Lluís Duran ere historialaria da, Òmnium Cultural-eko bazkidea eta sinposioaren batzorde antolatzailekoa. “Españolismoa Katalunian” izan zen bere hitzaldiaren gaia. Lluís Duran klarki mintzo zitzaidan: “Mentalki eta espiritualki jada ez gara Espainian, ez gara ordezkatuak sentitzen Espainian”.

Azken hiru mendeotan, Kataluniak 1714an berezko erakundeak galdu zituenetik, Kataluniako ordezkari politikokoak etengabe saiatu dira Espainiako politikan eragiten. Laburbilduz,

Madrilén eragin Espainia berri bat eratzeke, Kataluniak berezko zituen eta dituen ezaugarriak atxikitzeke. Bide horretan bestelako antolamendua bilatu dute Madrilgo gobernuengan eraginda. Josep M. Sole Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko katedratikoa da. Solek bere hitzaldian aztertu zituen, besteak beste, 1901etik gaurdaino Kataluniako klase politikoak Madrilgo gobernuari harremanen markoa aldarazteko, autonomian sakontzeko egin dizkien proposamenak. Kataluniak konponbide demokratikoak eskaini dizkie Espainiako gobernuari, ezaguna da Madrildik maiz jaso duten erantzuna.

Paradigma aldaketa

Kataluniako gizarte zibilaren gehiengoak enpo egin du. Sinposioaren egitaraua aztertu ondoren paradigma aldaketa gertatua dela antzeman daiteke. Orain arte, historiaren alorrean ere, Kataluniak Espainiako historiografian eragin du, adibide gisa Solek bere hitzaldian ohartarazi zigunez, Madrilgo hedabideek *Espanya contra Catalunya* sinposioaren zuzentasuna zalantzan jarri dutenean kolokan jarri dute Espainiako Aro Garaikideko Historia katedratikoen erdia. Espainiako oposizio bat gainditu duten unibertsitateko katedratikoen erdia utzi dute ezeztatuta.

Egun helburua ez da Espainian eragitea, orain Kataluniak bidean aitzina egiteko beharrezko dituen tresnak nahi ditu atxiki, bide katalana landu eta eginkizun horretan lehen mailako eragilea izan da gizarte zibila. “Jendeak, orokorrean, mesfidantzaz begiratzen ditu alderdi politikoen egiturak, baina, aldiz, eroso sentitzen da, elkarte, plataforma eta gisa horretako antolamenduetan”. Lluís Duranek ohartarazi digunez, azken bi urteotan eta krisi garaian egonda ere, Òmnium Cultural elkarteak bikoiztu du bazkide kopurua. Jendeak lagundu, lan egin nahi eta helburu zehatzak ditu laketago laguntza hori emateko unean.

Duela bi urte arte eta inkestei erreparatuta Katalunian gutxiengo bat agertzen zen independentista. Zer gertatu da prozesu horretan? Zer dela eta daude prest egun ordezkari politikoen ia bi herenak azaroaren 9ko Erreferendumaren bultzatzeko? Nork konposatu du Erreferendumaren sinfonia? Bat datoz Duran eta Fdez-Cuadrenchen gertakari horren azalpena ematerakoan: gizarte zibilak eraman ditu politikariak prozesua hau bultzatzera.

Gizarte zibila lanean ari da CDCren hautua SiSi izan dadin eta PSCren sektore zabalak limurtu nahian, horiek ere baiezko bikoitzaren aldekoak izan daitezkeelako

Kataluniako Gobernuak prest du zentso alternatibo bat egiteko plana. Baina antolamendu guztia alferrikakoa litzateke ohiko hauteskundeen parte-hartzea lortuko ez balitz

Poza eta ardura

Adierazpenen emaria etengabea izan zen Erreferenduma iragarri zen egunean. Kontsulta babesten duten ordezkari politikoei batasun itxura agertu zuten, sindikatuak begirunea adierazi zuten prozesuarekiko eta gizarte zibila, politikariak toki horretara eraman dituzten elkarte, plataforma eta gainerakoak poza ezin ezkutatzuz agertu ziren komunikabideetan.

Poza eta ardura, izan ere, jakin badakite hau guzti hau hasi besterik ez dela egin. Haiek berebiziko protagonismoa izanen dute Kataluniako gizarte pizturik mantentzen. Gisa honetako kontsulta batek parte-hartze handia behar du, eta tentsio puntu hori mantentzea haien lanetako bat izanen da.

Sinfonia Katalana konposatzen dihardu gizarte zibilak, eta obra ahalik eta armoniatsuena nahi du. Alderdien alorrean, CDCren hautua SiSi (bi galderei baiezkoa ematea) izan dadin ari da lanean, gizarte zibilak jakin badaki PSCren sektore zabalak limurtu behar dituela, horiek ere baiezko bikoitzaren aldekoak izan daitezkeelako. Kataluniako Gobernuak prest du zentso alternatibo bat egiteko plana, kalkulagailua martxan jarri dute, kontsultak izanen duen kostu ekonomikoa jakite aldera. Baina, antolamendu hori guztia alferrikakoa zatekeen ohiko hauteskunde baten maila bereko parte-hartzea lortuko ez balitz. Hori izanen da gizarte zibilaren beste arduretako bat.

Gogoangarria izan zen sinposioaren sarrera hitzaldia. Josep Fontanak Katalunian iraganean eta berriki gertatu diren berezko manifestazioak aztertu zituen, berezko manifestazio horiek agerian uzten dute segitu beharreko bidea. Katalunia badoa.

Bitartean, Madrilgo Gobernuak garbi utzi du kontsulta oztopatuko duela. Noiz arte? Eta oztopatuta ere lortuko al du Rajoyren gobernuak Auzitegi Konstituzionalaren laguntzaz erreferenduma ez egitea? Arestian aipatu bezala Generalitatean lan talde bat ari da lanean zentso alternatibo bat egiten. Erreferendumaren iragarpenaren biharamunean Bartzelonako Gracia auzoko eskola batean afaldu nuen. Katalunian historikoki eskola izan da integrazteko biderik garrantzitsuenak, gizartearen kohesio-natzeko tresnarik behinena. Afarian, kus-kus gozoa jaten eta sagardo freskoa edaten ari nintzela, Texas estatuko herritar batekin solasean aritu nintzen. Texasekoak botoa eman ahal izanen du azaroaren 9an. ■



ARNAU CARNÉ

«Aldaketa sozialik gabe ez dago nazio burujabetzarik»

Endavant herrialde katalanetako ezker independentismoaren baitan dagoen erakunde politikoa da eta bertako kide dugu Arnau Carné. CUPeko egituraren parte hartzen du Endavantek: “Erakundeetan lan egiteko tresna gisa ulertzen dugu”, dio Manresako militanteak.

Testua eta argazkia:

| AXIER LOPEZ |

Zein gako nabarmenduko zenuke Principateko prozesu subiranistatik?

Interesgarriena da azken bi urteetan mahai gainean jarri dela independentismoaren eztabaida. Hori positiboki baloratzen dugu, orain arte halako aldarrikapenak ezker independentistaren ingurura mugatzen zirelako. Baina egia da, baita ere, balore eta ideologia liberalaz busti direla. Zentzu horretan subiranismo berri hau elikatzen duten aldarrikapenen zati handi batek zerikusi handia du krisia “konpontzeko” moduarekin: Madrili errua botatzen zaio espolioz fiskalaren kontuan, pentsatuz Katalunia Espainiako erregio aberatsena dela eta independente izango bagina hobe ibiliko ginela.

Orain arte Madrilgo gobernuen sozio handiena izan dena, CiU, prozesuan parte hartzen ari da. Zergatik?

Hainbat elementu aztertu behar dira gertaera hau ulertzeko. Lehenik, jakina, herritarren presioa. Horrek behartu du CiU marea soberanistara gehitzera, beldur baitzen baztertuta geldituko ote zen edo beste erakun-

de politiko batek bideratuko ote zuen. Bigarrenik, prozesua erabiltzen ari dira kezko gortina moduan, Generalitatea ezartzen ari den neurri antisozial guztien aurrean: ospitaleak eta eskolak ixtea, zerbitzu publikoak desagitea CiUri loturiko interes komertzial pribatuen alde, ustelkeria kasuak... CiUri oso ondo etorri zaio gobernua ez higitzeko. Eta hirugarrenik, oligarkia politikoen arteko lehia. Kataluniako oligarkia politikoa ordezkatzeko duen CiUren eta PPren oligarkia espainiarraren artean lehia sortu da. Espainiako Estatuak, berriz zentralizatze eraso eginez katalan autonomiaren eskumenak ukitu ditu eta horrek CiU erreazionatu arazi du.

“Kataluniako gizarte berria eraikitze subjektua etor dadila herritarren batasunetik, eta ez katalan eskuinetik”

Prozesu subiranista honek kontraesanak ditu ezker independentistak proposatzen duenarekin? Esaterako, lurraldetasuna edo Europar Batasunaren inguruan?

Lurraldetasunaren gaiaz, garbi dago Espainiako Estatuak politika probintzianoa erabiliz urte askoan herrialdea desegin duela eta horrek ekarri du jendea kosta egiten zaiola nazio sentimendua bere egitea, zatiketa autonomikoa gaundituz.

Bestalde, Europar Batasuna erabat loturik dago agintean dagoen klase politikoaren eredu ekonomikoari. Ukaezina da, bai lehenago baina batez ere Berlingo Harresia erori zenetik, kapitalismoa beste biderik ez dagoela dioen ideologia liberala gizartean errotu dela. Hala, krisi ekonomiko bat sufritzen dugun arren, eta

sistemaren eta klase politikoaren sinesgarritasun falta handia dagoen arren, jendeak ez du beste biderik beregain hartu. Eta klase politikoek hasieratik lotu dute prozesua eredu ekonomiko berriaren markoan. Hau da, Europar Batasunarekin.

Orduan, noraino egon zaitezke ados?

Ezker independentismoak bere proiektua dauka: herritarren batasuna sortu eta bere ildo ideologikoak landu (independentismoa, sozialismoa, feminismoa). Paraleloki badaude beste sektore batzuk kontsulta babesten dutenak. Ondo da, egin dadila kontsulta. Endavant moduan eta independentista moduan nola esan genezake ezetz? Beti egon gara autodeterminazio prozesuen alde. Independentzia bai edo ez erabaki behar bada, ezkerreko independentismoak kolaboratuko du, orain arte modu batean edo bestea egin dugun bezala.

Oraingo koiunturan, erreferenduma egiteko helburua daukagu, independentzia bai edo ez



Euskal Herrian izan da Arnau Carné egunotan, Askapenak gonbidatuta hainbat hitzaldi ematen.

esateko, baina era berean, katalan nazioak gainerako Kataluniako herrialdeak bildu ditzala eta katalan gizarte berria eraikitze subjektua etor dadila herritarren batasunetik, eta ez katalan eskuinetik.

Askok esango dizute edozein aldaketa sozialen aurretik independentzia politikoa beharrezkoa dela, estatua.

Taktika eta estrategia kontua da, eta zeinek planteatzen duenaren arabera. Sektore libreak esaten duten momentutik “joan gaitezen batera independentziarantz eta gero zuek saia zaitezke gizartea aldatzen”, niri urrats hori jada ez zait interesatzen. Beraiek esaten duten moduan burujabetzarik gabe ez dagoela aldaketa sozialik, geuk esan genezake aldaketa sozialik gabe egiaz ez dagoela nazio burujabetzarik. Katalan estatu bat eduki dezakezu eta Generalitateko jauregiaren balkoian katalan bandera jaso, baina Europaren aginduetara bazaude, Europar Batasuneko egiturazko politiken eta nazioarteko merkataritzaren menpe, hori ez da burujabetza.

Zein urrats ikusten duzu etorkizunean?

Zaila da, oso irakurketa ezkorra dago Principateko independentziarako kontsultak egingo duen bidearen inguruan. Batetik, Espainiako Estatuak eragotzi egingo duelako, modu legal eta adostuan egitea momentu honetan ezinezkoa da. Eta desobedientziaren bidez egin behar bada, baina desobedientzia hori egun Generalitatean gobernatzen dutenek burutu behar badute, oso zaila dirudi, alderdi hauek pakturako izan duten tradizio historikoa ikusita. Hau

esanik, egia da bi urteotan bizi izan ditugun gertaerak duela hiru urte pentsaezinak izango liratekeela. Orduan, herritarren erantzun irmoa badago alderdiak egiaz kontsulta egitera beharrezko, eta katalan burgesiak ez baditu mehatxu ekonomikoak erabiltzen –multinazionalak herrialdetik eramatea eta halako xantaia–, agian erreferenduma izango dugu 2014an. Baina konplikatu ikusten dugu, Espainiako Estatuak eragotzi egingo duelako eta agintean dauden katalan alderdi politikoeziko konfiantza handirik ez dugulako.

Prozesu hau kontuan hartuta, nola ikusten da Euskal Herriko egoera Principatetik?

Euskal Herriko herritarren borroka erreferente bat izan da historikoki Kataluniako ezker independentistentzat. Militantziaren konpromisoagatik, erakundeengatik, Espainiako Estatuarekiko konfrontazioan egindako ibilbideagatik... Horrela baino ezin daitezke ulertu katalanen partetik izan dituzten elkertasun keinu ugariak. Kezka handiz bizi izan ditugu azken urteetan sektore zabaletan izan dituzuen eraso errepresibo horiek guztiak. Eta errepresioaren ikuspegi horretatik, uste dugu ageriko zailtasunak daudela Euskal Herrian Estatuarekiko haustura nazional eta soziala ekarriko duten jarrerak mantentzeko. Errepresioak sorturiko higadura hori izan daiteke, ildo nazionalaren aukera taktikoan zentratzeko beharra sortu duena. Baina edozein kasutan, historikoki konfiantza handia dago, baita harremanak, elkartasuna eta borroka konpartitua ere. Hor ikusiko dugu elkar. ■



Independentzia egongo da, ez baita erreferendumik egongo

EZ DUT NIRE BURUA analista politiko zorrozatzat, baina Katalunian gertatzen ari denaz eta nire ustez gertatuko denaz dudak pertzepzioa partekatuko dut. Askorentzat gogaikarri bihurtu den prozesu soberanista deiturikoaz ari naiz noski; nire iritziz atzerazieneko prozesua, hilabete batzuetan Europan beste estatu bat izatera eramango gaituena.

Iruditzen zait estrategia osoa erreferenduma EZIN egitera bideratuta dagoela. Are gehiago, ezta ahalegintzera ere sikiera. Bitxia bada ere, unionista esan diezaiekegunen itxaropen bakarra izango litzateke kontsulta egin eta independentziaren aldeko nahiak gehiago murriztea, edo akaso galtzea. Baina kontsultarik egiten ez bada, independentzia egongo da.

Gakoa da gobernu zentralak, espainiar parlamentuak, epaitegi baten erabakiak edo dena delakoak erreferenduma gauzatzea eragozteko. Independentziaren aldeko bide legezko itxita, hauteskundeak aurreratzea beste aukerarik ez da izango. Zalantzarik ez dago emaitza, orain arte bezala, independentziaren aldeko alderdien gehiago absolutua izango dela, suertatuko den Parlament-ak indepen-

dentzia alde bakarretik aldarrikatzeko zilegitasun demokratikoa –legez kanpo bada ere– edukiko duela, eta aldarrikatu egingo duela. Helburu hori betetzeko derrigorrezkoa da, berriz diot, kontsulta bideraezina izatea eta ez gauzatzea. Rajoy eta Rubalcabaren burugogorkeria funtsezkoa da prozesua nahi bezala burutu dadin: sezesioaz.

Zer egin dezake gobernu zentralak prozesuaren une honetan edo geroagoko beste edozein unetan?

Erreferenduma, unionistek duten zentzuzko aukera bakarra, ez da egingo. Horrexek bihurtuko du zilegi alde bakarreko independentzia aldarrikapena, eta egoera ohiko erara baizik ezin izango da zapuztu, hau da, armen indarrak

Erantzuna: ezer ez. Autonomia katalana bertan behera uztea ezin pentsatzeko da, arazo administratibo itzela, inork konpontzen jakingo ez lukeena, sortuko litzateke eta. Hasteko, Generalitateko President-a kargutik kendu eta... nor jarriko lukete beraren orde? Eta nola?

Halaber, gobernu zentralak ezin du gauza handirik itxaron atzerriko herrialdeez. Argi dago zazpi milioi herri-

tar Europatik “botatzeko” mehatxua ez dela beteko, besteak beste beren burua Espainiatik nahita bereizitako herritar horiek ez luketelako hargatik espainiar naziotasuna galduko, ez behintzat Konstituzioaren 11.2 artikulua betez gero.

Gauzak horrela, alde unionistari ekinbide bakarra geratzen zaio. Negoiazteari uko eginda, eta Konstituzioaren 155. artikulua aplikatzeko gauza ere ez dela, zortzigarren artikulua gauzatzea beste biderik ez luke izango, alegia, interbentzio armatua.

Laburbilduz. Erreferenduma, unionistek duten zentzuzko aukera bakarra, ez da egingo. Horrexek bihurtuko du zilegi alde bakarreko independentzia aldarrikapena, eta egoera ohiko erara baizik ezin izango da zapuztu, hau da, armen indarrak. Ejertzitoa ikusiko dugu kaleetan. Horraino iritsita –eta honezkero ere bai, izatez– zalantzan gaudenok lehenago edo geroago hautatu beharko dugu nazionalisten eta nazionalen artean. Nik dagoeneko aukeratu dudalakoan nago. ■

Manuel Delgado Ruiz

Antropologian doktore da Bartzelonako Unibertsitatean eta bertan irakasten du. *El cor de les aparen-ces* izeneko bloga dauka eta honako artikulua bertan argitaratu zuen 2013ko abenduaren 13an.

ANC / ORIOL CREUS



Eliteek ordainduko dutena

DENBORA POLITIKOA agortu da —badaukagu galdera— eta Katalunian oraindik ez dira eszenatoki-ara atera ez klase gidariak, ez eliteak, ez hirugarren bidea edo antzinako burgesiaren ordezkariak, ezta enpresari handiak ere. Askok ahotsa galtzeraino eskatu dugu sektore horiek, neurri handi batean *peix al cove* [pragmatismo] politikaren protagonista izan ziren eta azpiegituren eta finantziazioaren soka luzatu zuten sektoreak, agertzea. Baina badi-rudi inhibitzea erabaki dutela, zain egotea. Onartu beharko dugu honezkero ez direla azalduko, haien indarrak ez duela bermatuko Kataluniako prozesu politikoa.

Harrigarria da sektore horien pasibotasuna. Krisi ekonomikoan izan duten lidergoari traizio nabarmena egin diote, eta orain, Kataluniako historia garaikidearen unerik garrantzizkoenean, bazterrean gelditu dira. Batzuetan ematen du haien estrategia bakarra ezer txarrik gerta ez dadin itxarotea dela. Ez dute mahai gainean ipini itxuraz gustuko zuten hirugarren biderako proposamenik, eta ez dituzte beren baliabideak erabili Madrilgo Gobernuaren jarrera negoziatzailea behartzeko. Ez dute eztabaidan inplikatu nahi izan; ez dute burujabetzaren aldeko edo aurkako daturik, kontakturik, hausnarketarik ez proposamenik eskaini; ez dute bat egin independentzia irrikarekin, baina *statu quo*aren aldeko argudiorik ere ez dute eman.

Beharbada otoitzean ari dira, talka gertatu baino lehen trena errailetik irten dadila eskatuz, baina agidanek, ez dira ohartzen euren inhibitzioaren ondorioz gauzatu litekeela bere kabuz betetzen den iragarpen bat, independentziaren arrakastak hondamendi handia ekarriko duela dioena; agian uste dute zalantza eta beldurra zabalduz atzera-egite automatikoa eragingo dutela; edo pentsatzen dute hau guztiau ezer gertatu ez balitz bezala amaituko dela, Estatut-aren negozi-azioaren aurreko egoerara itzuli ahal izango direla eta (...) saleroskeriaren politikari heldu ahal izango diotela berri.

Ez dira jabetzen honezkero ezin izango dela horrelakorik gertatu. Baliteke etorkizunean aukera gehi-ago izatea, baina ez porrotak markatutako belaunaldi honetan; alderdi sistema autonomoaren gainbehe-arak espainiar politikaren eskuetan utziko luke Kataluniaren patua, eta espainiar politikak ez luke ahaz-tuko parean egokitu zaion erronka. Badaezpadako



ANC / ALBERT CARRERAS

Kataluniako herritar guztien multzoak irabazi edo galduko du partidua, erabakitze-ko eskubidearen aurkakoa barne. Eliteek, interes gehien dutenek, galtzeko gehiago ere badute

birzentralizazioa berehalakoa izango litzateke, dagoeneko abian dagoena baino sakonagoa.

Katalunian aspaldi gailendu zen burujabetza aldarrikapenen logika kolektiboa, eta balizko porrota ez litzateke haien alde dauden katalanen porrot hutsa. Espainiar akzio politikoak egiten dituen aldarriak irakurri besterik ez dago, norgehiagoka Estatuaren eta Katalunia osoaren artekoa izango dela jabetzeko. Hortaz, azkenik Kataluniako herritar guztien multzo-

ak irabazi edo galduko du partidua, erabakitze-ko eskubidearen aurkakoei barne. Eliteek, interes gehien dutenek, galtzeko gehiago ere badute. Independentziaren alde edo aurka joka dezakete, baina ez burujabetzaren kontra. Haien patua eta Kataluniarena erabat lotuta daude. Pentsatu egin behar lukete horretaz. ■

Rafael Nadal i Farreras

Kazetaria eta idazle katalana, *El Periódico de Catalunya* egunkari-ko zuzendari izan zen. Egun *La Vanguardia*ko zutabegile da eta berton argitaratu zuen honako artikulua 2013ko abenduaren 13an.

«Janaria identitatearen ispilua da»

Mahaian, labana beti zorrotz.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Nola hartzen da lur elikagaien antropologian?

Mundu apal batetik nator, etxe-giro xume batetik, eta Bordeleko unibertsitatean ari nintzela ordura arte lurrarekiko nuen lotura beste bizimodu batek estali zuen. Eskaleek zakarrontzietan arakatzen zuten karrikan bizi nintzen eta, horrek tripak uzkalirik, kontsumoaren gaitzak aztertu nituen. Kultura Materiala Baionan lantzen hasi eta elikadura eta antropologia biodibertsitatearen prismetik serioski aztertu zuten autoreekin egin nuen topo, naturarekiko nire lotura berriz azalera ekarri. Jacques Brel-ek kantatzen du haur batek 8 urterekin egiten dituela amets oro, eta haien gibeletik bizi dela gero. Ni izan naiteke haur hori, egun egiten dudana txikitan amaxirekin nituen hizketaldietan oinarritzen baita. Antropologia, definizioz, gizakiaren ikerketa da, baina horrek ez du esan nahi hiru urte pasa behar dituzunik aborigenekin oihanean. Zure ikerketa abentura pertsonal bat da, jendarteak pausatzen dituen galderei erantzun nahia, pasio bat. Elikadurari buruz lan egiten duenak ez du sekula deskonektatzen, egunero jatera behartuta dago, eta norbere burua bihurtzen du ikergai eta ikerketaren parte. Munduan zehar bidaiatzen dudanean, bertakoek bezala jaten dut. Bertakoekin enpatizatu eta nire mugak atzimateko manera da, janariari buruzko muga gehienak ez baitira fisikoak, kulturalak baizik. Zergatik saltzen dute Chiapaseko herri batean arratoia oilaskoaren prezioan guri hozkia ematen digularik? Zergatik ez dugu jaten giza haragirik? Muturreko adibideetara joan gabe, Hegoaldera etortzeko ohiturarik ez duen Itsasuko aitatzia zergatik ez da fidatzen babarrun beltzarekin eta bai ilar zuriarekin? Ezberdintasun handiko zibilizazio eta komunitateak osatzen ditugu. Horretan datza antropologiaren lilura.

Jaten dugunean galdera onak pausatzen dizkiogu gure buruari? Jabetzen gara jatearen alde kultural eta identitarioaz?

Gehiegi hitz egiten da kaloriez, prezioaz eta osasunaz, eta gutxiegi aspektu identitario eta kulturalaz. Hori da elikadurari buruzko egungo diskurtsoaren akats nagusia. Esaterako, Euskal Herriak lurralde innoibatzailearen ospea du munduan. Anitz mintzo dira korporatibismoaz, garapen lokalari begira Iparraldean muntatu ziren nekazal kooperatibez, Lur Berriz... Lur Berriren arrakasta finantzarioa begi-bistakoa da, baina nola sentitzen dira bere laborari kooperanteak? Hastapenean, kooperanteak izango ziren, baina orain ez al dira azken izerdi tantaraino ustiatuak? Egun, Lur Berri multinazional bat da, arrakasta finantzarioaren izenean, hasierako garapen sozialaren xedea kondenatu duena. Horregatik itzuli behar zaio jendeari dimentsio kulturala. Hori da elikaduraren egungo desafioa. Bestela, kaloriez, plazeraz eta osasunaz mintzo zaizkigu, baina ardoaren industriak dena diruztatzen duenez, biziki komenigarria da otorduro baso bat ardo edatea! Bitartean, etxegabe aljeriar batek Bordeleko karriketan *consoussa* topatu eta, bere jatorria gogoan, bere historia zela aldarrikatzen zuen hunkituta.

NORTASUN AGIRIA

Frédéric Duhart Baionan sortu zen, 1976ko otsailaren 3an. Irakasle eta ikertzailea Basque Culinary Center-en, 2009tik hona CORPUS nazioarteko taldeko koordinatzailea eta UAES erakundeko elikaduraren antropologiako batzordeko arduraduna da. Horretaz gain, artikulu eta liburu anitzen egilea da, hala nola, *Du monde à l'assiette* edo *Anthropologie historique du corps*.



Dimentsio identitario kulturala gure muinean dago, horregatik da ezinbestekoa.

Ez al ginen denak munduko biztanleak?

Bizitza osoa sukaldean inolako esker onik gabe pasa duten gure amaxiei dimentsio kultural hori itzultzea gure zibilizazioaren giltzak haiek jaso eta haiek transmititu dituztela onartzea da. Baina ez, munduko biztanleak nahia-go du kultura ondare bezala bizi, elikaduraren dimentsio kulturalaren arazoetan ito baino. Gertatzen dena da, arras jendarte mailakatuan bizi garela, non jende batek nahi duena jaten duen eta besteek ahal dutena. Zuk ahal duzuna jaten baduzu eta gainera zure buruari halako galderak pausatzen badizkiozu erotu egiten zara! Baina zurrunbiloan murgiltzen bazara, dena jartzen duzu zalantzan, produktuen zinezko izaeratik hasi eta elikagaien marketinera. Esaterako, Donostiako Bretxan goizero saltzen dituzte barazkiak urrearen prezioan. Horri merkatua deitzen diote, baina lapurreta antolatua da! Esango didate ekoizle txikiak direla, baina betiko produktuak *delicatessen* bihurtzea ez da gertuko laborantza, lapurreta da. Hala, galdera soka kateatzen zarenean, kontsumitzaile problematikoa bilakatzen zara. Ez da aski Bio kontsumitu nahi izatea, oilasko bat erosten dudanean zein adin duen jakin nahi dut, sagarrak hartzen ditudanean zehazki zer motatakoak diren... Horiek dira oinarritzko galderak, eta horiek pausatuz itzuliko diegu pisua laborari eta ekoizle txikiei. Horiek zintzo ari dira lanean eta desiratzen daude galderei erantzuteko. Komunikazioa eta publizitatea dira arrapostua emateko gai ez direnak.

Jaten duguna garela dio publizitateak.

Hara sistemak lapurtutako eta harlauza baten gisan arrastaka daramagun leloa! Alabaina, egia da. Esaterako Euskal Herrian oso artadi identitarioak dauzkagu. Pentsa, taloa gure ikur identitarioa zen, ia-ia desagertu zitzaigun, eta jai identitarioei esker berpiztu da. Noiz jaten da taloa hemen? San Tomas egunean, eta gure arbasoek hilkutxetan buelta-erdi ematen dute 4 euro kobratzen direla entzutean. Sagardoarekin gauza bera, oso edari identitarioa da. Botilatzeretan zein da sagardoa edaten den egun bakarra? San Tomas eguna. Baina kontuz, kalimotxoa ere biziki edari identitarioa da, eta Coca-Colaz egina dago! Horregatik, korapilo askagaitza da identitatea, eta kosta egiten zaigu elikadurari buruz ari garenean, jendartea islatzen ari garela frogatzea. Baina jatea gure esku dagoen ekintza politikoa eta sinbolikoenetakoa da, gure identitatea plazaratu eta baieztatzeko moldea. Zergatik da, bestela, hain protesta arma esanguratsua gose greba? Zer gertatzen da txerrikiarekin Frantziako eskoletako jan-

tokietan? Musulmanak asaldatu egiten dira, laikoek txerrikiaren presentzia defendatzen dute, eta bitartean, ostiralero arraina jaten da! Musulman batentzat txerriki jatea guretzat giza haragia jatearen parekoa da, eskrupulutik harago doan tabua. Horregatik diot: janaria identitatearen ispilua da.

Arrastaka daramagun harlauzari buelta emanez: garena jaten dugu?

Gauden lekuan dagoena soilik jan dezakegu: janaria antipodetakoa bada ere ekarri egin behar digute. Hortik dator elikagaien paisaiaren kontzeptua. Noiz onartuko dugu elikagiez inguratuta gaudela paisaiaz inguratuta gauden bezalaxe? Donostian ez dago basamorturik eta inor ez da saiatzen Saharatik desertua Easo kalera ekartzen, ezta? Zergatik egiten dugu hori elikagaiekin? Kontua da elikadurak espazioari loturiko dimentsio bat daukala, birtualki dena egin daitekeelako, arnasa hartu, lo eta jan izan ezik. Hori hala, nahi duzuna jaten ari bazara, oso posible da zarena jatea. Zer gertatzen da? Aitzindaria, *fashiona* eta mugidakoa sentitzen den jendea Mugaritzera doala afaltzera, ongi ikusia dagoelako eta otordua 200-300 euro ordaintzeak estatus sozial bat ematen diolako. Era berean, alternatibotasuna afirmatu nahi duen beste jende batek kinoa jaten du, eta kinoa arras ona da berez, baina kinoa jaten duen perutarra ez da batere alternatiboa! Bestalde, bere identitate sakonean janariaren bidez borrokatzen duena dago, jatun politikoa, hala nola, denak integratzeko bazkari herriko begetarianoak antolatzen dituen edo produktu lokalei lotuta bizitzea hautatu duena. Zergatik uste duzu Frantzian sakabanatuta geunden ikasle euskal herritar orok patxaran botila bat genuela armairuan? Zergatik Quebec-era zihoazen Ipar Euskal Herriko ontzietako kapitainek antzara konfitatuak zituzten maletetan? Zirena ahoratu nahi zutelako. Nahi duguna jaten dugunean, garena jaten dugu. Ahal duguna jatera derrigortuta gaudenean afera nekezagoa da, mingarriagoa. Horregatik, nire onetik ateratzen naute supermerkatuan saltzen dituzten urdaiazpiko xaflak kaka zaharra direla dioten gastronomo ongi ikusiek. Jaten duguna garela esanez betetzen zaie ahoa, supermerkatuko urdaiazpiko merkea kaka zaharra dela azpimarratuz egiten diete letaginek diz-diz, baina ez al dira ohartzen hala mintzatuta beste erremediorik gabe urdaiazpiko hori jaten duena kaka zaharra dela aldarrikatzen ari direla?

Jana ez ezik, otordua bera desitxuratzen ari dela aldarrikatzen dute aditu horiek.

Jateko manierak eta otorduen formak etengabeko mudantzan daude. Esaterako, Euskal

Herrian, gizonak eserita jaten zuten bitartean emazteek jana prestatu, zerbitzatu eta zutik jaten zuten aroa ezagutu dugu. Gerora, denak eserita bazkaltzen hasi ginen, baina oraindik etxe guztietan dago ohituraz mahai izkinan esertzen den eta noiznahi altxatzen den amaxia. Bestetik, guk ontzat jotzen dugun sistema, oso otordu egitura klasikoa da, baina zer da hobe, aitzak otordua andreari oihuka eta haurrei zaplaztekoka pasatzen duen familia batean bazkaltzea ala bakarrik telebistari begira? Sistema klasikoaren leherketaren atarian gaude, eta oraintsu arte bakarrik jatea bezalako salbuespenak oso arruntak bihurtzen ari dira. Adibidez, lantokiko bazkaltzeko atsedendia. Lehen, artisauek, ofizialek edo laborariek etxean bazkaltzen zuten, lan erritmoa horren arabera zen, jateko denbora jabe ginen. Orain etxetik kanpo lan egiten da, nagusien presiopean, inposatutako ordutegian, eta horrek jateko mota eta espazio berriak dakartza. Orain dela 15 urte arte, Iparraldean, ogitartekoak trena hartzen zuen jendearentzat edo lizeotako kantuan bazkaldu nahi ez zuten ikasleentzat baizik ez ziren saltzen oso toki bakanetan. Egun, okindegi gehienak horrekin aberasten ari dira. Beste etsenplu bat, lehen fabrika handiek jantokia zeukaten, okerrenera bakoitzak bere bazkaria berotu eta denak elkarrekin bazkaltzeko gune fisiko bat. Orain, jendea itsasertzean aparkatu eta autoan bere ogitartekoa bakarrik jaten ikusten duzu. Ez al da hori datu garrantzitsu bat langile borroka aztertzerako tenorean?

Berriz ere berandu gabilta?

Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak. Industria agroalimentarioak eskaintza zabaldu eta biderkatu du aurrez prestatuen eztanda eraginez eta elikaduraren liberazio honetan jateko molde berrien lilura sortuz. Zentzu berean, zer ari da gertatzen pintxo potearen bat-bateko moda honekin? Eta sushia jatearekin? Iparraldeko lehen sushi jatetxea 1994an zabaldu



zen, eta egun Baionako udaletxe aitzinean daude, negozio arraskatsu baten ikur bihurturik. Ukaezina da ereduaren garapen edo aldaketa aro batean gaudela, baina ez dut uste mudantza molde klasikoari kontrajarri behar



Onddoak

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Pasioa

Jende batek argumentuekin konbentzitzen zaitu, beste batzuek irribarrearekin txunditzen zaituzte, eta Duharten pasioak harrapatu nau ni. Elkarrizketa erdian, ostatuko gainontzeko bezeroei erreparatu eta banan-banan erretratatu dizkit, basoan edo plateran zeukatenetik abiatuta. Eskerrak ez nintzen ez gose, ez egarri.



zaionik. Antropologiatik erreparatuta, garape-nak ez dira ez onak ez txarrak, jendarteek eboluzionatzen dute eta kito. Orain dela 20 urte sukaldaritzaz lagunartean mintzatzea atzera-koia eta naftalina usainekoa zen, eta orain telebista piztu eta ez dago besterik!

Modak dakarrena ez al du modak eramaten?

Segur aski, baina orain sukaldaritzaz eta gastronomia puri-purian daude. Telebista ez dago hori sustatzeko, horretaz baliatzeko bai-zik. Horregatik uste dut sukaldaritzarekiko faszinazio berri honen giblean badagoela sozializazio batera itzultzeko grina. Normalean, norberarentzat ez da hainbesteko lanik hartzen. Amantala jantzi eta ikastaroan ikasitakoa lagunentzat praktikan jartzen duenak besteen aitzinean ongi agertzeko gogoa du, sozializatzeko bere bidea da. Jendea etxean errezibitzeko artera itzultzen ari gara, bi ur kontraesankorren artean igeri. Izan ere, gerta liteke eguerdian Burger King-ean hanburgesa zutik jan duenak arratsaldean sukaldean pasatzea iluntzeko bere gonbidatuak txunditzeko gutziak prestatzen. Horregatik gaude arras memento interesgarrian.

Ulertu liteke jatearen ekintza, ekintza isolatu bezala?

Ezinbestekoa den neurrian, ezin liteke jatea jendartetik kanpo ulertu, guztiarekin konektatuta dago. Ez dago platera bezalako ispilurik

jendeari begira egoteko. Jendartea jaten duenetik aztertzen duzularik, dena daukazu: ekoizpen kate bat, jendarteratze kate bat, kate simboliko erlijioso historiko bat... Elikaduraz ari garenean kate osoaz ari gara, ez hiru izarreko jatetxez soilik. Horregatik diot elikaduraren antropologian murgiltzeak txikitzen amatekin nituen hizketaldietara naramala. Enetzat, elikadurari buruz lan egitea ekoizleei buruz ikerketa egitea izan liteke, baina baita nire euskaltasuna afirmatzeko modua ere. Egunez egunera hormatzarretik gero eta hurbilago dagoen frenorik gabeko kamioia da garapena, eta kamioia gelditzea biziki gaitza bada ere, oraindik garaiz gaude birako bat eman eta erreka bere bidera ekartzeko. Hori orain egin behar dugu, ordea. Hemendik hamar urtera berandu izango da. Orain laborantza biologikoan sartzekotan diren gazteak laguntzen eta gidatzen ez baditugu, hemendik hamar urtera beilatokitako langileak izango dira. Lurraren arazoa, krisi inmobiliarioaren behar da. Dena asfalto eta adreilua izango denean alferrik aldarrikatuko dugu gazte batzuk nekazaritza ekologikora lotu nahi direla. Hau da estrategia orokorrak pentsatu eta gauzatzeko unea, eta hor kokatzen dut Basque Culinary Center bezalako erakunde baten zentzua eta egitekoa. 8 urterekin egin nituen ametsak betetzea dagokit, orain. ■





ANDRA MARI
restaurant

Elxalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com



40.000
gipuzkoarrek
konpostatzen dute
beren organikoa

**20 udalerrik % 70etik
gora birziklatzen dute**

**Beste 17 herrik % 70etik gora
birziklatzeko konpromisoa
hartu dute**

**7 Zero Zabor herri;
laster, beste 8**

**Zero Zabor programak ikastetxeetan,
Basque Culinary Centerren, enpresetan...**

**GIPUZKOARROK
ONDO ARI GARA**

Gipuzkoa Zero Zabor Lurraldea

Hala bada, libre bedi

Duela zortzi hilabete, Gasteizko Gaztetxearen 25. urteurrenaz aritu ginen. Oraingoan, haren ahizpa nagusia den Hala Bedi irrati libreak bete ditu urteak: 30 urte kolpeak jasotzen eta kolpeak ematen.

| URKO SAENZ DE BURUAGA |

HALA BEDI oso testuinguru zehatzean sortu zen. 70eko hamarkadan eraikitako itxaropenak beteko ez zirela-eta, desengainua gizarteaz jabetu zen. Batez ere, gazteriaz. Militar eta apaizen Gasteiz horretako gizarte mugimendu askoren jarduerak ez zeukaten oihartzunik komunikabideetan. Bozgorailu baten bila, irrateria sortzea erabaki zuten, antolatzen zituzten manifestaldien, hitzaldien eta ekintza ugarien berri emateko. Hastapenetan, irrateria bidea zen, behar batetik jaiotako tresna. Aurretik argitaratu duten liburuan aipatzen denez, “momentu horretan ez zegoen ez gazte mugimendurik, ez ezer, eta asanbladetan edo zeri buruz hitz egiten genuen. (...) Hala Bedi Gasteizko edo are Euskal Herriko lehen gazte-erakunde sendoa izan zen”.

Gaur egun, guztiz sendotutako hedabidea da, berezko izaera duen irrateria. Hala ere, eraikitze unean jarritako oinarri beretan mantentzen da: asanblarismoa, autonomia eta autogestioa (Halabelarri bazkideen kuotei esker mantentzen da). Eta agian garrantzitsuena, beste komunikabideetan tokirik ez dutenen ahotsa izaten segitzen du.

Lehenengo zartakoak

Irratiaren ibilbidea 1983eko Zeledonon jaitzierarekin abiatzea zen asmoa. Horretarako, walkie-talkie hornituta, bi kideko unitate higikorra enparantzara hurbildu zen abuztuaren 4an. Ezin izan zuten jaitziera eman ordea, polizia bi lagunak atxilotu zituelako. Azkenean, Hala Bediren lehenengo emanaldia abuztuaren 6an gauzatu zen, txosnetarako bakarrik igorri bazen ere. Horren ondoren, urte erdi eman zuten emititu gabe, alde zaharreko Santo Domingo kaleko pisu bat egokitu zuten arte.

Berriz ekin ziotenean ere, ez zen esperientzia luzea izan, 1984ko apirilaren 25ean irra-

tiak bere historiako lehenengo itxiera jasan baitzuen. Herriaren erantzuna ikaragarria izan zen, baina komunikabideek ez zuten ezer aipatu. Isiltasun hori apurtzeko, Hala Bediko kideek Radio Vitoriako egoitza okupatu zuten komunikatu bat irakurtzeko asmoz, baina Ertzaintzak kanporatu egin zituen. Lokalik eta ekipamendurik gabe, denbora dezente pasatu zen berriro emititzen hasi ziren arte. Baina itxierek ez dute Hala Bedi isildu. Urtebete geroago, Patxi Bisquert aktoreak Hedegile kalean zuen pisu bat utzi zien eta ordura arteko historia laburrean lortutako babesa argi geratu zen, itzulera ospatzeko antolatu zuten kontzertuan. Toki guztietatik etorritako jendeak txiki utzi zuen La Blanca kiroldegia.

Hala Bedik musikarekin izan duen harremana oso estua izan da beti.

1985eko kontzertu hori baino sonatuagoa izan zen orain Fernando Buesa Arena den Zurbano abere plazan 1987an eskaini zutena: Kortatu, La Polla Records, Vómito eta Quemando Ruedas aritu ziren. Jaialdian grabatutako kasetearen kopia pirata ugari bueltaka ibili dira, ekitaldiak izan zuten oihartzunaren seinale.

2003an, 20. urteurrena ospatzeko, remasterizatu eta CDan plazaratu zuten, liburuxka batekin batera.

Etengabe kontrolpean

Irratiaren arrakasta ez zen batere eroso eraikunde ofizialentzat. 1985eko abuztuan Julio Pelayo Hala Bediko kidea atxilotu zuten, ETAko kidea izatea leporatuta. Urte eta erdi eman zuten kartzelan, epaiketak gabe. Kontatu zuenez, polizia Hala Bediko jardueraren jarraipen zehatza zeraman, irratiaren aurreko pisu batetik ateratako chunka argazki eta guzti.

Bisquertek berak ere arazoak izan zituen poliziarekin, irratiarekin zuen harremanaren-

Hala Bedi 2ren sorrera da erronkarik hurbilena. Bigarren kateak euskara hutsez igorriko du 88.8 frekuentzian, eta abenduaren 28an abiatzeko asmoa dute



Irudian, komuneko eskuilarekin egoitza berria bedekintzen. Bi solairuko lokalean, lau estudio, fonoteka, informatika gela, bideo ediziorako gela eta beste hainbat gune dituzte. Asteazkenera 90 lagun baino gehiago igarotzen dira bertatik.

gatik. Aipatu 20. urteurreneko liburuxkan azaltzen zenez, behin, komisarian zegoela, polizia batek zera esan zion: “Ez zaigu gustatzen nagusia zirikatzea”. Aktorearen harridura aurpegiaz ohartuta, jarraitu zuen: “Bai, bai, Barrionuevo”. Azkenean pisu hori ere itxi eta ekipamendurik gabe utzi zituztenean, Euskal Herri osoan erakutsitako elkartasuna handia izan zen. Babesa adierazteko komunikatuak irakurri asmoz, Bilbo eta Donostiako irratiak ere okupatu zituzten.

Hala Bedik berriro ere altxatu zuen burua, baina poliziaren presioak nabaria izaten jarraitu zuen eta behin eta berriz gainditu behar izan ditu oztopoak. Itxieraz gain, bestelako boikotak ere jasan ditu, sarrienak antena baliogabe uztea. Gorabeheraz jositako hogeitaz horetan atzean gelditu dira eta Hala Bedik inoiz baino osasuntsuago ematen du. Iñaki Ziarsolo “Iñako”k argi dauka bizirautearen gakoa: “Hala Bedi beste irrati libre askotatik bereizi da, urte hauetan mantentzeaz gain, garai berrietara egokitzen jakin duelako. 80ko hamarkadan jende eta indar nahikoa zegoen zailtasunak jasateko, baina 90eko hamarkadan krisia egon zen: irratiaren zortzi lagun inguru baino ez zeuden eta behin baino gehiagotan ixtea pentsatu zen. Orduan, erabaki egokiak hartu ziren irrati indartu eta garai berrietara egokitzeko. Edonork parte hartzeko moduko irrati egitea erabaki zen, eta nik uste horrek salbatu zuela Hala Bedi”.

Frekuentziak

Gasteiz-Lautada-Aramaio: 107.4

Errioxa-Mendialdea-Trebiñu: 107.7

Aiaraldea (Uhinak irrati): 96.5

Ziarsolok ondo daki zer den irrati libre bat martxan jartzea, eta zeintzuk diren arriskuak. Ostegunetan emititzen den *Zabarrak Berri* irratsaioaren Ermuko arduraduna duela hamabi urte iritsi zen Gasteiza, historia ikas-tera. Sorterrian irrati libre bat martxan jartzeko asmoarekin zebiltzan, eta Hala Bedira hurbildu zen aholku bila. “Irrati libre bat sortzen ari nintzela, irrati piztu eta Hala Bedi entzutea niretzat luxua zen”. Irratiaren martxan jartzea lortu zuten, baina lau urte besterik ez zituen iraun. Ziarsoloren aburuz, “zailena ez da irrati bat sortzea, emisioa mantentzea baizik. Astero programa bat egitea konpromiso handia da. Hala Bedi bezalako irrati batean merezi dizu, badakizula-ko entzuleria badaukazula, baina irrati txikietan ez dakizu norbait entzuten ari den”.

Bizirauteko moldatu

Eraldatze prozesuan, Hala Bedik bere alderdirik ganberroena alde batera utzi behar izan zuen. Iraganean prozesio ateoak eta jai alternatiboak antolatu zituen irratiak manerak zaintzera behartu zuen bere burua. Ermuarrak dioenez, 80ko hamarkadan “gizarte mugimenduek, baita Hala Bedik ere, probokatzeko nahia zuten. Bizi ziren garaia ez zitzaion gustatzen eta horren aurka egiteko modua horretaz barre egitea eta ahalik eta gehien asaldatzea zen. Gaur egun, telebistan probokazioa mugaraino eraman da eta jendea probokaziora ohituta dago. Orain dela 20 urte prozesio ateo batek eskandalizatu eta jendeari



U. SÁENZ DE BURUAGA

Ezkerrean, bileren esparrua; eskuinean, Iñako Ziarsolo. Hastapenetan jarritako oinarriak mantentzen ditu irratiak: asanblearismoa, autonomia eta autogestioa. Eta agian garrantzitsuena, beste komunikabideetan tokirik ez dutenen ahotsa izaten segitzen du.

pentsarazi egiten zion, baina gaur egun gauza berdina eginez ez da hori lortzen”.

Mezuari edukia ematearen beharra ikusi zen, eta horrekin batera programazioarekiko ardura. Irratian aritu nahi duen orok Hala Bediko ateak irekita aurkituko ditu. Kide guztiak boluntario ari dira eta gehienek ez dute aurretiko eskarmenturik kazetaritzaren munduan. Irratsaio baten proiektuarekin hurbiltzen direnei, dena azaltzen zaie. Gainera, aldian behin tailerrak antolatzen dituzte,



HALA BEDI

lokuzioa eta alderdi teknikoak irakasteko. Ikastaroetara irratiko kideak ere hurbiltzen dira, baina edonork har dezake parte. Izan ere, Ziarsoloren ustez, “irratira hurbiltzeko aitzakia ona izan daiteke. Irratira zuzenean etorri beharrean, ikastaroan ikusten da zelan funtzionatzen duen honek eta zer nolako jendea dagoen”.

Euskara hutsezko Hala Bedi

Etorkizunera begira, erronkarik hurbilena Hala Bedi 2ren sorrera da. Bigarren kateak euskara hutsez igorriko du 88.8 frekuentzian, eta jarduera abenduaren 28an hasteko asmoa dute. Proiektu berri honen jatorria 2011n Eusko Jaurlaritzak irratizko lizentziak banatzeko lehiaketan aurki dezakegu. Gasteizen banatu behar ziren hamar lizentziatik hiru euskara hutsezko irratientzat izango ziren, baina arlo horretan aurkezpenik egon ezean, gaztelaniazko irratiek jasoko zituzten. Hurrengo hamabost urteetan euskarazko irratirik gabeko panorama saihesteko, euskara hutsezko irratia proiektua aurkeztu zuten elkarte baten bitartez. Lizentzia lortu zuten, baina Jaurlaritzako zerbitzu juridikoen irregulartasunez jositako prozesua deuseztatu zuten. Lizentzien lehiaketa hasieratik iruzurra izan zela salatzen duen arren, aurrera begira Ziarsolok uste du irratizko libre askok argi utzi duela zein den beraien nahia: egoera alegala utzi eta “euren egoera egonkortzea eta legeztatzea”. Jadantik ez dago legearen barruan egon nahi ez dutela esateko aitzakiarik. ■



‘30 urte kolpez kolpe’ Liburu-dokumentala eta CDa

30. URTEURRENA hurbil zegoela, *Zabarrak Berri* historia irratsaioko arduradunek Hala Bediren ibilbidea liburuan biltzea proposatu zuten. Horretarako, duela zazpi urte Iker Sáenz de Argandoña historialariak unibertsitaterako egindako lana osatu eta moldatu dute Iñaki Ziarsolok eta Unai Gartziak. Dagoeneko salgai dago, dokumental batekin batera (*30 urte kolpez kolpe*). Jatorrizko testua euskaraz idatzi zen, baina liburuan gaztelaniaz ere irakur daiteke. CD bat ere plazaratu dute, azken 30 urteetan Euskal Herrian egin diren hamabost abestitatik abiatuta hamabost euskal taldek egin dituzten bertsiorekin. Diskoa Johnny & Joseph-ek urteurrenerako moldatu eta Fermín Muguruzarekin grabatu duten *Kolpez Kolpe* abestiarekin hasten da. Ohiko liburu-dendetan, interneten bitartez (www.bonberenea.com) eta *TMEO* aldizkaria banatzen duten tabernetan lor daiteke guztia.

Usurbil



2013ko abenduak 21

Usurbilgo OIARDO Kiroldegian
2013ko abenduaren 21ean, bi saio: 16:00etan eta 18:30etan

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

"Bizipoza"

lan berriaren aurkezpen emanaldia

Sarrerak: aurretik 8 euro / egun berean 9 euro (12 hilabete arteko haurrak doan).

Antolatzailea: ARGIAren Lagunak Usurbilgo Taldea.

Harremanetarako: 943 37 15 45 / sustapena@argia.com



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Ukrainan joko zikina

SESB ERORI eta pribatizazio prozesua egin zenean, atzeritarrek debekatua zuten Estatuko enpresak eta ondasunak erostea, baina bertakoek diru askorik aurreztua ez zutenez, prezio ezin merkea-goetan egin zen pribatizazioa. Inoiz gertatu den ondasun publikoen sakeorik handiena izan zen. Adibidez, Kremlinetik gertu zegoen hotel baten benetako balioa hainbait milioi dolarrekoa izan arren, herritar batek 1.000 dolarretan erosi zuen, handik egun gutxira hoteleko sarreran zegoen lanpara 1.500 dolarretan saldu zuen enkante batean. Diru apur baten truke (askotan mehatxu eta xantaiekin lagundurik gainontzeko balizko erosleak uxatzeko) milioi bihurtu ziren batzuk, bereziki sistema kapitalistaren izpiritua hobekien ulertu zuten espekulatzailak, mafiosoek eta Estatu aparatuan ondo kokatutakoek. Horien artean edota horien zerbitzura egon dira beti Viktor Justxenko (iraultza laranja ostean presidente bilakatu zena), Julia Timoxenko (Lehen ministroa izandakoa iraultza laranja ostean eta orain kartzelan dagoena ustelkeriagatik) eta Viktor Janukovitx (egungo presidentea).

Sistemak behingoz bi aurpegi erakusten zituen konpetitzeko: borroka ezker-eskuin ardatzean zentratua egotetik ukrainar hiztun-errusiar hiztun ardatzera igaro zen. Eskema berrian komunistak joko z kanpo gelditu ziren. Baina, eliteen arteko interes desberdinek talka egin dute tarteka

Justxenko Ukrainako pribatizazioen gidarietako bat izan zen lehenengo, gero 1993tik 1999ra Ukrainako Banku Zentraren presidentea izan zen Kutxma presidenteak Lehen ministro izateko izendatu zuen arte. Timoxenko eta Janukovitx Kutxmaren zerbitzura egon ziren ere bai. Garai haietan *laranjak* (ideologia neoliberal eta ukrainar nazionalistarekin herrialdearen mendebalde pobreak dute indarra) eta *urdinak* (ideologia zentro-ekzertiarrekin errusiar hiztunen ekialde eta hegoal-

deko eskualde erlatiboki aberatsean dute indarra) bat egiten zuten gorrien aurka. Boto gehien jasotzen zuen alderdia komunistak zen eta hau isolatze aldera denak ados jarri ziren, nazioarteko potentziak barne. Politikan mendebaldeko potentzien eta Errusiaren arteko oreka bilatzen saiatzen ziren, nahiz eta gatazka gehiago zeuzkaten ekialdeko bizilagunarekin.

Kutxmaren seme-alaben artean bi aukera politiko jaio ziren, laranjak eta urdinak. Sistemak behingoz bi aurpegi erakusten zituen konpetitzeko: borroka ezker-eskuin ardatzean zentratua egotetik ukrainar hiztun-errusiar hiztun ardatzera igaro zen. Eskema berrian komunistak joko z kanpo gelditu ziren. Baina, eliteen arteko interes desberdinek talka egin dute tarteka. Laranjek aliantza bat dute mendebaldearekin, urdinak aldiz, Kutxmak urteetan jokatuak papera izaten saiatu dira, oreka bilatuz mendebalde eta ekialdearen artean, nahiz eta gatazka gehiago izan dituzten Errusiarekin. Horregatik eta oligarken iturri zikineko diru eta jabetzak legitimatze aldera (honetan laranjek bezala pentsatzen dute), Ukraina EBan sartzearen alde egin dute irmoki. Baina, EBk “asoziazio eta merkataritza askeko” tratua baino ez dio eskaini Ukrainari, bere murrizketen eta politika neoliberalen paketearekin.

Urdinek, beraien interes partikularren defentsa burutuz ukrainar interesak defendatu dituzte oraingoan, batez ere 2015ean hauteskundeak daudelako berriro. Testuinguru horretan, oposizioa “estatu kolpe leuna” ematen saiatu da. Beste behin, mendebaldeko potentziak eta nazioarteko hedabide gehienak zikin ari dira jokatzeko, Janukovitxen gobernu demokratikoa izango ez balitz bezala tratatuz. Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da. Mendebaldeko erakunde arabera (EBk orain bi hilabete argitaratutako txostena barne) Ukraina bere testuinguruan estaturik demokratikoenetakoa da. Adibidez, tratatua sinatu duen Georgia baino “demokratikoagoa” da *The Economist* en demokrazia indizearen arabera. ■





Valls, BATERA-ren eskakizuna baino harago:

<ETAK ARMAK PAUSATZEN
EZ DITUENO, EZ DA (IPAR)
EUSKAL HERRIKO EGITURARIK>

ERGO, FRANTZIAK ONARTZEN DU PUBLIKOKI
EUSKAL HERRIA BERE OSOTASUNEAN:
GEOPOLITIKA BAT IPAR ETA Hego



AZPIAK
BAT!

Iñaki Martínez de Luna

SOZIOLOGOA ♦



ITZIAR UGARTEMENDIA

Euskarak 365 egun

BA OTE DU ZENTZURIK *Euskarak 365 egun* bezalako kanpainak premiez, ARGIAko irakurleak konbentzitzen ahalegintzeak? Ezezkotan nago, irakurle denek izango baitute euskararekiko, gutxienez, nik bezain besteko ardura. Hortaz, ez nator errepikatzera guztiok dakiguna. Probetxugarriagoa izan dakiguke, aldiz, esandako kanpainaren mezuaz gogoetatxo bat piztea.

Euskarak 365 egun kanpainak onura asko ditu lelotik harago. Hasteko, “ikusgarritasuna, euskara” hitza milaka aldiz ikusi ahal izan delako, hormatan itsatsita ekimena Euskal Herriko 32 herritara zabalduko da-eta. Ezin da ahaztu hitzek duten balioa ideiak eta asmoak iruditatzeko, eta hitz bat begi aurrean izatean bere esanahiak garrantzia hartzen duela ikuslearentzat. Ez da gutxienekoa, hortaz, kanpainaren afixak milaka batzuk izatea, horrek euskara egon badagoela edonoren begi-bistan jarri duelako.

Ikusgarritasuna eta hedapena lagungarri zaizkio edozein euskaltzaleri, bere gogoko zaletasunari tinko eutsi diezaion. Baina are gehiago euskaratik lekutan bizi diren herrikideari, halako leloen bitartez ohikoa ez zaion hizkuntza gogoan izan dezan, bederen.

“Kanpora” begira ez ezik, euskalgintzako eragileengan ere aldeko eragina izan du kanpainak, seguru

asko. Hots, aterki beraren pean hogeita hamasei bat euskara elkarte elkar hartuta ibiltzea bada mugimenduen koordinaziorako beste pauso bat gehiago.

Hemendik aurrerako lerrook publizitateko adituek nik baino askoz hobeto idatziko lituzketen arren, ausartuko naiz niretzat labainkorra den eremura sartzen.

Ezaguna da “Euskarak 365 egun” kanpainak zer bilatzen duen: zalantza daukat, hala ere, mezu kriptikoa, ulertezina, ez ote den herritar askorentzat

ARGIAko irakurlearentzat ezaguna da, gutxi asko, *Euskarak 365 egun* kanpainak zer bilatzen duen: gure hizkuntza egunerokotasunean txertatua izateko beharraz jendea jabetzea. Zalantza daukat, hala ere, mezu kriptikoa, ulertezina, ez ote den herritar askorentzat.

Adibidez, *Euskaraz Bizi nahi dut* kanpainak duen xede-taldea euskaldunena izango da seguruenik, hizkuntza hori uneoro balia dezagun

bultzatu eta horretarako behar diren baldintzak aldarrika ditzagun. Beste maila batean, UEUren *Txiokatu zure tesia 6 mezutan* lehia arrakastatsua, doktore eta doktoregai euskaldunen mundu txikira zuzendua izan da. Nori zuzendu ote zaio *Euskarak 365 egun* leloa? Euskaltzaleez harago ulergarria ote? Euskalgintzaren hesiak gainditzeko gauza? Hori da, hain zuzen, gizarte zabalarentzat mezu bakarra zabaltzeak izan dezakeen arriskua, guztientzat egokia ez izatea. ■



DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Ez dago emakumerik

DUELA hilabete edo, Euskal Herrian fama-tua den musika jaialdi bateko kartela bistaratu nuen. Kartela osatzen zuten hamabi taldeetatik bat bera ere emakumez osatuta ez zegoela ikusita, harritu nintzen. Ez hori bakarrik, talde guztietako partaideak kontuan hartuta, emakume bakarra izango da taula gainean instrumentu bat jotzen.

Asaldatau egin nintzen, gaur egun politikoki zuzen izatearren bada ere, uste nuelako halakoetan “zaintzen” zutela gutxieneko presentzia bat.

Jaso nuen erantzunak ordea gehiago mindu ninduen: “Saiatu gara bati deitzen, baina ez dago emakumezkorik!”.

Eta nik aurrekoan Durangotik bueltan erositako zortzi disko ditut bat-batean parean. Ohartu gabe, euskaraz aritzen diren zortzi emakume buru dituzten zortzi disko ditut. Pentsatu dut, ez inon inor egoteko, ez dela kopuru makala.

Izan ere, duela urte batzuk festa bat osatzeko edo txosnetan emakumeen musika errekopilatzeko, estutasun uneak pasa izan ditugu. Baina ez, gaur ez dut halakorik onartuko, izan ere egon baitaude, asko, askotarikoak, eta onak. Eta horri entzungor egiteak patetismoa urratzen du. ■





Joxe Iriarte, *Bikila*

♦ IDAZLEA

Ifrentzua eta aurkia

SINBOLO GUZTIAK dira manipulariariak, baina batzuk gehiago besteak baino. Che Guevarak gazte matxinatuen ikurra izaten jarraitzen du, halaber, modako arropen apaingarri. Mandelaren laudorioak goiko zeruraino iritsi diren unean Leninen estatua lurreratu eta txikitu dute eskuinteko manifestariak Ukrainan.

Sinbolo batzuei aurkia ikusten zaie soil-soilik (hala nahi delako), beste batzuei berriz ifrentzua. Mandela eta Lenin esate baterako. Baina sinbolo guztiek, distiratsuenek ere, badute bere ifrentzua. Sowetoko FNB estadioan ospatu den hiletan bi alde horiek azaldu dira. Jakina, aurkiak, *Madibaren* aurpegi irribarretsua izan du protagonismo osoa, baina bere ifrentzua ere presente egon da ospakizunean. Mundu osoan milioika omenaldi ezin zintzoagoak egin dizkiote *Madibari*, horietako askok (duten azal kolorea dutela ere, zurieta zurienak) iraganeko negoziatioetan Mandela estu hartu zuten estatu buru, multinazionalak agintari, eta egun, beren lurraldeetan *apartheida* ezarri dutenak dira (Palestina zein Melillako mugetan).

Handia izan da Mandelaren obra: arraza desberdinetan oinarritutako *apartheid* sistema ezabatzea, zuri edo beltz izan, pertsona ororen berdintasuna formalean (pertsona bat boto bat) oinarritutako gizarte bat eraikitzea ezin da inolaz ere gutxietsi. Alabaina, berdintasun formala eta benetako berdintasuna (erreal) ez da gauza bera, batez ere, sozialki hain zatitua dagoen Hego Afrikako bezalako gizarte batean.

Segur aski, Mandelaren zorigaitzerako, *apartheidaren* bukaerak eta neoliberalismo globalizatuaren erabateko nagusitasunak zapuztu zuten bere egitasmo soziala. Hots, nazionalizazioaren eta eremu publikoaren nagusitasunean oinarrituriko ANCren programa historikoa baztertu izana. Ezin dugu ahaztu Davosko bileran Mandelak berak ontzat eman zuela zuriak eta neoliberalismoak ezartzen zizkieten mugak. Modu horretan, iraultza demokratikoa mugatuta geratu zen eta bere egitasmo soziala ia hutsaren hurrengo, beltzen sektore urri batentzat izan ezik, jakina.

Mandelaren zorigaitzerako, apartheidaren bukaerak eta neoliberalismo globalizatuaren erabateko nagusitasunak zapuztu zuten bere egitasmo soziala

Horrez gainera, askotan galdetu diot ene buruari, zergatik bizirik zegoela Mandelak ez zuen salatu begi-bistan zuen ANCren, gobernuaren eta buruzagi askoren (Mbeki, Zuma eta enparauen) ustelkeria? Edo oligarkia zuriaren nagusitasun ekonomikoa? Isilik jarraitu zuen ere (nik dakidala) diamante-meatzetako langile grebalariek gobernu beltzak gupidarik gabe jipoitu zituenean.

“Obra oro zirkunstantziaren seme-alabak dira”, zioen Goethek. ■



BERTSO BERRIAK

Maddi Sarasua Laskarai



Doinua: Espainian behera.

IKEA Baionan

Nahiz proiektu itzela duten iragarri aberastasun eta lanpostu iturri. On ezin dela izan diogu igerri berriarentzat dena eraikuntza harri bihurtzen baldin bada lehengo hilerri.

Izan arren altzari handi eta fina arrotzean gurea kabituz ezina. Nahiago armario xumea, jakina nahiz ta ez distiratu besteak adina herriarentzat eta herriak egina.

Multinazionalak egin gonbitea ez ote da salduaz geronen jitea kapitalismoaren morroi egitea. Jada usaintzen zaio nahi su horri kea uholdeek eraman bezate IKEA. ■



«Talentu asko dago, baina gizarteratzeko espazioak falta dira»

Baikortasunak batzen dituen hamaika abesti bildu ditu Antton Aranburuk bere bigarren lanean, bizirik gaudela gogorarazteko.

| LANDER ARRETXE BEREZIARTUA |

Bizirik, disko koloretsua garai ustez grisotan?

Hala da. Azken aldian halako tristura kolektibo bat nabaritzen dut, eta hein handi batean gure buruari inposatzen diogula uste dut. Azken finean, orain hamar urteko pertsona berberak gara. Egia da badagoela gainbehera ekonomiko bat, baina hori besterik ez da. Badaude zenbait gauza halako garaietan pizten direnak: sorkuntza izan daiteke bat, talentua. Uste dut gazteria eta inplikazioa dauden bitartean edozeri egingo diogula aurre. Mezu apokaliptiko horietatik ihes egin nahi nuen. Antzinako aldarrikapen mezua da: bizirik gauden artean, badago itxaropena.

Azalean ez ezik, kolore aniztasuna antzematen da abestietan ere.

Hori bera bilatu dut. Abestiak elkarren artean oso ezberdinak dira. Hasieran horren aurkako hainbat iritzi izan nituen; aukeratutako abestiak lagunei erakusten nizkienean, entzuleak despistatuko nituela esaten zidaten. Baina horrek diskoa aberastu egiten duela iruditzen zait. Soinu eta musika aldetik ez da disko lineala, salto handia dago abesti batetik bestera, baina lotzen dituen haria baikortasuna da. Ez dakit asmatu dudanez edo ez, baina horixe zen nahi nuen.

Bizirik bakarkako lana da edo taldekoa?

Talde lana da. Nahiz eta ideia bakar batek jarri, talde lanak aberastu egiten du. Jendearen iritziak entzutea gustatzen zait. Gainera, entzuteko gaitasun eza gizartearen gabezia handietako bat dela iruditzen zait. Kantuak nik sortuak dira eta neuk idatzi ditut hitzak, baina hasierako oinarri horri banda osatzen dugun guztion artean [Josu Jungitu, Iker Uriarte, Raúl Vera,

Asier Yarza eta Antton Aranburu] eman diogu forma. Nik e-postaz bidaltzen nizkien abestiak gainontzekoei eta lokalera heltzean modu demokratikoan erabakitzen genuen zein aldaketa egin. Estudioan Aitor Abiok ere asko lagundu digu produkzioan.

Taktika eta Estrategia abestian Mario Benedettiren hitzak erabili dituzu. Zer dela eta?

Beste abesti guztiek nik idatzitako hitzak dituzte, baina Benedetti asko gustatzen zait.

Táctica y Estrategia poema izugarri gustatzen zait; hozkailuan dut iman batekin jarrita. Oraindik ere Benedettiren hitzek hunkitu egiten naute, nahiz eta hamaika aldiz irakurrita izan. Omenalditxo bat egin nahi nion, eta poema berezi horrekin abestia egitea otu zitzaidan. Normalean gerrako kontzeptuak diren horiek maitasunera eramaten ditu,

kontatuz zer egiten duen maite duen pertsonaren maitasuna lortzeko. Itzulpen libre xamarra egin dut, baina hark kontatzen duenarekin hertsiki lotua dago.

Oihanean bildu dira kantuak ere badu berezitasunik. Ekologismoaren gaia landu duzu, baina animalien ikuspegitik.

Paul Simonen *Graceland* diskoa izugarri gustatzen zait, Afrikaren omenez egina da. Pentsatu nuen nik ere egin behar nuela abesti afrikar bat. Ikerketa txiki bat egin nuen erritmo afrikar bat lortu nuen arte. Hitzei dagokienez, aldarrikapen kanta da, baina moztarrotuta dago. Umei begira egin nuen abestia, baina badu halako puntu sarkastikoa, eta baita mezua ere. Animaliak oihanean biltzen dira haien arazo eta gai garrantzitsuenak identifi-

“Soinu eta musika aldetik, Bizirik ez da disko lineala, baina lotzen dituen haria baikortasuna da”



L.A.

katzeko; azkenean konturatzen dira arazo nagusia gizakiaren gehiegikeriak direla, eta horri aurre egiteko estrategia garatzen dute.

Gasteiztarra ez bazara ere, zure maitasuna aitortu diozu *Gasteiz esnatzen ari da* abestiarekin. Euskal Herriko hiriburua izanagatik, askotan bazterrean uzten dugula dirudi.

Ni bizkaitarra naiz, eta harro nago. Baina urte asko daramatzat Gasteizen, eta asko eman dit. Uste dut oso hiri ederra dela, bizitzeko eroso eta atsegina. Baina egia da, niri lagunak ere galdetzen didate ea zer demontre egiten dutan Gasteizen. Badago halako gaizki-ulertu bat, eta uste dute gatzik gabeko hiri aspergarria dela. Alderantziz gertatzen dela esango nuke, 90eko hamarkadaz geroztik kultur mugimendu oso indartsua dago Gasteizen, hiriaren sektore eskuindarrenari aurre egiten diona. Musikagintzan ere abangoardian dagoela uste dut, izugarritzko maila duten musikariak irten dira bertatik. Gainera, horren txikia izateko oso eszena indartsua du, Bilbo, Iruñea edo Donostiakoa baino indartsuagoa, konparazio baterako. Gainontzeko hiriburuetan, askotan zaila da kontzertuak emateko tokiak aurkitzea.

Hortaz, diskoa argitaratu arren, ez da erraza zuzenekoak eskaini ahal izatea?

Panorama ez da erraza. Dei gaitzatela, jo nahi dugu! Zuzenekoak aldarrikatu behar ditugu. Gero eta jende gutxiago joaten da. Lotoki besterik ez diren hiriak ari gara sortzen, eta aste barruan desertu bihurtzen dira. Hiri kulturala hiri sortzailea dela aldarrikatu behar

“90eko hamarkadaz geroztik kultur mugimendu oso indartsua dago Gasteizen, hiriaren sektore eskuindarrenari aurre egiten diona. Musikagintzan ere abangoardian dagoela uste dut”.

dugu, eta sorkuntzari gizarteratzeko behar duen espazioa eman behar zaiola. Hori egin ezean, norberak sortzen duena etxean gertatzen da, eta asko galtzen du gizarteak. Zuzenekoak behar ditugu, diziplina artistiko guztietan. Gaur egun, artista famatua ez bazara, zaila duzu eszenaratzea. Gero eta jaialdi gehiago daude, eta gero eta talde handi gehiago datoz, baina bertako artistentzat ez dago erakusleiorik.

Musika Industriaren Elkartek duela gutxi adierazi du euskal musikagintzaren industria hiltzorian dagoela. Ados zaude?

Ez erabat. Talentu asko dagoela uste dut, gero eta jende gehiago dago oso ondo jotzen duena. Musika eskolen eragina nabari da. Hala ere, hori guztia gizarteratzen ez bada, ez du ezertarako balio. Gizarteratzeko bide hori da hiltzorian dagoena eta erakundeek hori aldatzeko ekimenak jarri beharko lituzkete martxan, dirua inbertituz eta bestela. Demagun tabernariei zerga gutxiago kobratzen zaiela zuzenekoak antolatzeagatik. Gauza asko egin daitezke, eta egin behar dira.

Eta halere, gustuz ekin diozu musikagintzari.

Musikariok badakigu ez dela hau gure ogibidea izango, baina bi urtean disko bat atera eta hogeit bat kontzertu eman ahal izatea mugarrria da, poza ematen du. Bidean arrakasta lortzen baduzu, hobeto, baina ez dut hori bilatzen. Nahi dudana egiten dut, ez funtzionatzen duena. Joko horretan sartzen bazara, akabo. Gozatzea da gakoa. ■



ARGAZKILARITZA GARAIKIDEAREN ZENTROA


Zaleen eta profesionalen topaleku

Bilboko Argazkilaritza Garaikidearen Zentroak urtea beteko du aurki. Ricky Dávila eta Ernesto Valverde argazkilarien ekimenenez sortua da, eta argazkigintza eskola, erakusketa aretoa eta disziplina honen zaleei eta profesionalai zuzendutako topalekua izan nahi du guneak. Ricky Dávila zuzendariarekin hitz egin dugu, eta bere ustez, une oparoa bizi du argazkilaritzak.

| MYRIAM GARZIA |

Argazkiak: Argazkilaritza Garaikidearen Zentroa

IKASTURTE HONETAN 60 ikaslek eman dute izena Bilboko Argazkilaritza Garaikidearen eskolan. Urte osoan arituko dira ikasleok, baina hiru hilebeteko moduluak eta asteburuko tailerak ere eskaintzen ditu zentroak. Eduardo Momeñe, Jose Ramon Bas, Iñaki Domingo, Gonzalo M. Azurmendi, Mikel Alonso, Alberto Garcia-Alix edota Ricky Dávila bera, besteak beste, arituko dira irakasle.



Oinarritzko mailatik espezializatuenerainoko aukera eskaintzen dute, argazkilari, zaletu edo profesional ororen ezagutza grina asetzeko moduan. Argazkigintza eskolaz gain, bertako zein atzerriko argazkilarien lanez osatutako erakusketa antolatzen dute hilero. Hil honetan, kasurako, Jose Ramon Basek *Paradisua* deituriko erakusketa paratuko du zentroko aretoan.

Beste ekimenetako bat, *Zentroko Ostiralak* deituriko solasaldi-hitzaldi sorta dugu. Hilean bitan ostiralez, argazkilariak, komisarioak eta ikus eremuko sortzaileak erakartzen ditu zentroak. Informazioa partekatzeko abagunea da batik bat, arte disziplina honetako dinamizatzailerak, zaletuen eta profesionalen arteko trukeko aukera. Helburu bera hartuta, *Contratiempo* izeneko hiruhilabetekaria argitaratzen du, egungo argazkilaritzaren inguruko berri emateko.

Eguno disziplina garaikideetako bat

Ricky Dávila, zentroko zuzendari eta argazkilariak, hainbat argazki liburu ditu argitaratuak, bakarka nahiz taldean, eta hogeita bat argazki erakusketa jarri ditu han eta hemen. New Yorkeko ICP ikastegian ikasi zuen argazkilaritza eta Madrilan eman ditu hainbat urte. Ortega y Gasset eta Fotopress sariak jaso ditu, eta bere sorkuntza eremua autore argazkilaritzan kokatzen dute adituek, disziplina honi, bere ikuspuntua ez ezik, poetikotasuna ere erantsi baitizkio. Egun Ernesto Valverde argazkilariarekin batera darama Argazkilaritza Garaikidearen Zentroaren ardura eta zuzendaritza.

“Zentroa balio anitzekoa izatea nahi genuke, argazkilaritzaren eremuan zenbait jardun biltzen dituen. Alde batetik eskola dugu, bestetik erakusketa aretoa, eta azkenik, aldiz-

karia” azaldu digu Ricky Dávilak. “Plataforma irekia da zentroa, zaleen zein profesionalen esku dagoena, bertan elkartu eta topo egin dezaten. Argazkilaritza kultura emateko asmoz eta ilusio handiz egina da zentroa”, dio argazkilariak.

Kutsu garaikidea ere badu zentroak, izenetik beretik hasita. Ildo horretan, une goxoa eta oparoa bizi du argazkilaritzak, Ricky Dávilaren aburuz: “Argazkilaritzak eremu profesionala urratu du, eta esan daiteke ikusizko lengoaiak ia hitzak besteko indarra hartu duela gaur egun, emozioak, ideiak eta sentipenak eragiteko. Bestetik, oso transbertsala da, gizarte maila guztietara zabaltzen baita. Hortik datorkio zentroari izena, egungo denborari dagokion disziplina delako”.

Joerak ez ditu gustuko Ricky Dávilak, argazkilaritza arte disziplina izaki, joerei muzin egin eta sakontasunez jokatu beharra dagoela uste baitu. “Egungo argazkilaritza milaka ahots dituen poliedro izugarria da”, dio, “argazkilaritza lengoaiak unibertsala bilakatu den honetan, hainbat erregistro eta ikuspuntu onartzen ditu, eta hori polita da”. Hainbat mugimendu bil-

Bilboko Zabalguneko plaza dago Argazkilaritza Garaikidearen Zentroa.

tzen ditu egun argazkilaritza garaikideak; erreallismo hutsetik hasi eta informazio eremuan, publizitatean edo fikziozko irudi poetikoen bidez emozioak sortzeko orduan.

Beste esparru askotan bezala, teknologia berriek aldaketa ugari eragin diote arte disziplina horri, eta baztertu egin da lehengo artisau lana. “Laborategiko inurria izan naiz betidanik. Denbora gehiago pasatu dut argi gorritan beste edozein gauzatan baino”, azaldu du Dávilak. “Orduko laborategi lana inpresora batek egiten dizu gaur egun, baliabide berriak ematen dizkizu. Adibidez, paper mota asko dago, lan egiteko oso baliagarriak eta ezin hobeak”. Halere, material eta lan modu berriek ez dute azken emaitza eragiten, Dávilaren ustez. Hala, “Edozein hizkuntza, eta argazkilaritza ere hizkuntza da, garrantzitsuena ez da ‘nola’ esaten den, ‘zer’ esaten den baizik”. ■





Errespetatu
gehienerako
aforua

PERSONA, HELBURU

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

Finalik onenetako bat

Dagokionari berea ematea lege denez eta, bihotz-bihotzez horrela sentitzen dudalako, eskerrik asko ezer baino lehen BECeko oholtza gainera igo zineten zortzi bertsolarioi. Egiatan diot aspaldian hartu dudan gozaturik handienetakoa hartu nuela, eta iritzi partekatua izan zela badiot ez dut uste oso oker ibiliko naizenik.

| IÑAKI GURRUTXAGA ZUBIMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco

BANITUEN finalaren aurretik bi irudipen, bi sentipen. Bata: finalaurrekoak arte askoz ere presentego zeudela bertsolarien hutsegiteak jendearen ahotan, egindako lan txukunak baino. Bigarrena: nire inguruan sumatzen nuen aurreko txapel-duna Maialen izan arren txapelaren defentsa Ametsek egin behar ote zuen. Jende askok alde aurretik jarri zion txapela Ametsi eta horrek bere karga du.

Baina tira, usteak uste eta irudipenak irudipen, BECen goizeko hamaikak jo eta finala hutsetik hasi zen bertsolari guztientzat. Lau urte lehenago baino giro hotzagoa beharbada aulkietan, goizez, ez hala arratsaldean. Baina agurrak entzun

eta lehen bertsotik hasita benetan gauza zoragarriak guztien ahotik. Maialenen lehendabizikoak intenzio-deklarazio izan nahi zuela zirudien: gaiari eman zion begirada hori saio osoan zehar mantendu zuen. Elikagai-banku batean kamioia kargatzen ari denaren paperetik “eskututako borondatea borondatea ote da?” galdetu zuen momentutik hasi zen entzuleoi atximurka. Bertsoen kalitate estilistikoaz haragoko bertsokera batez gozatzeko parada izan genuen: ideologia oso bat, ikuskera bat, prisma bat eta dimentsio berezi bat. Izugarria begitandu zitzaidan Maialenen BECeko saio osoa. Ospitaleko pailazoaren ahotik “barrea ere barreago da minarekin

nahastuta”. Edo “bizitzeko ja berandu da ta hiltzeko oso garaiz”, emakume urteetan sartuaren paperan. Zaurietatik zetozen ahotsak entzun genituen hernaniarraren ahotik. Ahots urratuak gure giza kondizioaren zaurietan beretan arakatu eta orbantzen laguntzeko. Ez zuen txapelik jantzi, baina inoizko Maialenik onena entzun genuela ez dut zalantzarik egiten.

Txapela, izan ere eta honezkero dakizuen bezala, Ametsen burura joan baita bi mila eta hamahirugarren honetan. Amets gozo bat entzun genuen, aurreko txapelketetan mundua jatera zihoan gazte hura atzean geratu da, mundua murtzikatzen hasi da, talentuz, pazientziaz, pausaz. Goizeko pare bat ariketatant bertsotan buruarekin, arrazional, klasez sumatu banuen ere, laster jaitsi zuen bere errotaren ardatza sabelera, eta barrutik kantatu zigun, denok magalean hartuta. Kafearekin topa egin genuen, barrea margotu zigun sarri-sarri eta hunkitu noiznahi. Buru onean jarri zuen txapela Joanito Dorronsorok.

Zorrotz eta arantzak ateratzen Igor Elortza. Txapelketa oso-oso on bati amaiera bikaina eman zion. Haurra besoetan erakutsi zigun sentiberatasuna, puntukako bizitasuna... tasun apartekoak. Atzetik lan izugarria duen bertsokera zuzen bat eskaini zigun, beste behin, durangarrak. Zuzena, ez zuzentasunaren adieraz soilik: gure belarrietara jaurtitako





Txapeldunaren agurra:

Zerutik begira daude
Joxe eta Manuel Mari
ziega zulotik entzuten
beste euskaldun ugari.
Muxu bat Iparraldeko
bertso eskolako haurrari,
lagundu nauten guztiak
Olatz eta arreba bi.
Baina ni ez bainaiz hemen
neuk sortu hutsean ari
aitarena den txapel hau
eskaintzen diot amari
haurra nintzela euskaraz
erakutsi zidanari.

dardoak ziren. Oraindik ahozabalik gaude asko bakarkakoan hain maite duen errima anitzeko bertsoa hasi orduko goitik behera garbi ikusteko duen gaitasun horrek: kalkulu matematiko batetik abiatutako prezisioz kantatzen du. Flipantea.

Finalaurreko bi saioetako arantzak atera zituen bestea, Aitor Mendiluze. Oso goitik, esango nuke inoiz egin duen finalik onena egin duela aurten. Begiratu ironiko hori paseatzera atera zuen behin baino gehiagotan: agudo iltzatu zitzaigun buruan nagusiaren paperetik Sustrairi kantatu ziona, “lan gutxi dagoela dio alajaina, ea baduten zuri emateko aina”. Berdin seiko motzean Ametsekin egindako lana ere, puntu motzak eder josiz eta

edukiz kargatuz. Makillajerik gabeko bertsoakera ederra, entzun izan dioguna eta aspaldion aditu gabea, txapelketan. Askok poztu gintuen, eta jendearen estimuak ere adierazi zuen garbi.

Aitor bat eta Aitor bi, Sarriegi ere presenteago egon zen duela lau urtekoan baino. Goizean akaso distantego sumatu nuen, lanbro, harik eta bakarkakoan eta batere ohiko ez den neurri-irritadaren marka zuen bertso batekin Hemen Nago ozen oihukatu zuen arte. Bazkalondoan erosoago eta, motzean esanda, hobeto aritu zen. Finalean izan eta arrastorik utzi gabe joatearen mamua gainean izan bazuen, laster erantzi zion izara eta bertsoaldi elegante askoak utzi zizkigun handik atzera. Gogoratuko da jendea Sarriegi BECen izan zela, ez izan kuidadorik.

Beñatekin ere puxka batean akordatu da bertsozalea. Finaleko debutari bakarrak ere hortzak erakutsi zizkigun, eta ez zion mingainari horzkarik egin. Emozioa transmititzen asmatu zuen betebetan, eta ez zen momentu batez ere itzali. Egunak luze jotzen du BECen, baina bizkar gainean eraman zuen bertsoz bertso karga guztia, kanpokoon begietara arintasun erabateko. Kantaera lehen begiratuan ingenuo baina

poetikoak limurtu gintuen, azken agurrean anaiari kantatuko bertsoan negarrez jartzeraino.

Azken marka, bolada baterako gutxienez, Unai Iturriagak utzi digu. Egia zor, distira gehiago izan badu bere fusilaren mirak aurreko finaletan, goitik beherako lezioa eman zuen bertsoak joan, bertsoak etorri eduki zuen jarreran. Miresgarri aritu zen, bere pieza bakoitza mailuarekin kolpatuz, borrokatuz. Txapelketa Nagusian hogeitau urteko ibilia duen pertsonak, hasiera batean ilusiotik baino kezka eta beldurretik abiatuta entzuleei eta bere buruari leialtasun hori erakutsi badio, ez du gure gorespina baino gutxiagorik merezi. Ale guztiek norbere zigilua izatea da markarik behinena, eta hori inork egiten badu, Unai egiten du.

Eta irribarrerik zabalenarekin, zortzigarren, Sustrai. Hunkitu egin ninduen aldi berean Amets eta biak sailkapenaren bi ertzetan eta aldi berean elkarren poza elikatuz ikustek. Nahi bada ez zen Mauleko bakarkakoaren pareko ariketez erditu, baina beste behin argi utzi zigun bertso-lagunik gozonenetako bera dela. Besarkatu egin gintuen egun osoz, bere bertso kideak bezala, baita entzuleak ere.

Honekin joan da txapelketa. Txapela aldatu da buruz, gehiegi esatea ez bada, nik gogoratzen dudana finalik onenean. Atzera berriz lehengoa: eskerrik asko, bihotzez, eskerrik asko. ■



Sailkapena

1.-Amets Arzallus (1.203+534,5 buruz buru)	1.737,5
2.-Maialen Lujanbio (1.171+515,5)	1.686,5
3.-Igor Elortza	1.164
4.-Aitor Mendiluze	1.155
5.-Aitor Sarriegi	1.106
6.-Beñat Gaztelumendi	1.099
7.-Unai Iturriaga	1.099
8.-Sustrai Colina	1.082,5



Helduen Literatura

Sirena-hotsak
Xabier Etxaniz Rojo
Erein, 2013

Ahots bat, egia bat

LAU IPUIN LUZE bildu ditu Etxaniz Rojok, bere ibilbide literarioan bosgarren liburua den honetan.

Matxupitxu, *Akelarreak*, *American way of life* eta *Sirena-hotsak*. Orainetik iraganera, eta alderantziz, etengabe salto egiten duten egitura konplexuko ipuin hauek zenbait gai jorratzen dituzte: etorkinen bizimodua, euskal gatazka eta kale borroka, krisi ekonomikoa, familia barruko kontu ilunak.

Idazleak bizitako momentu batetik abiatutako istorioak dira guztiak baina ez dute elkarren arteko inongo loturarik, beraz, horrek baimentzen du liburua nahi besteko denbora tartean utzi eta berriz hartzea, nahiz eta osatzen duten 181 orrialdeak azkar eta erraz irakurtzeko moduko prosa batean idatziak izan diren.

Nolanahi ere, ez dut uste lau ipuin hauek kasualitatez liburu berean bildu direnik. Independenteki irakur daitezkeen arren osotasun bat eratzen dute, ageriago edo ezkutuago, elkarrekin duten *leit motivari* esker: egia-ren kontzeptua, gurea zein besteena, eta horrek dakarren esan/ez esan dilemaren auzia. Bizi dugun egia horrek izan ditzakeen aurpegi poliedrikoetatik zenbait galdera sortuko dira: Merezi al du kasu guztietan Pandoraren kutxa zabaltzea eta gure egia kontatzea? Zenbateraino laguntzen du ezagutzen ditugun sekretuak aditzera emateak? Zein da betidanik sinetsi arazi zaigun istorio (egia) bati eman beharreko sinesgarritasuna?


Fabian *Matxupitxu*-a da, halaxe esan omen zaie Atlantiko bestaldetik datozeinei. Bi urtez zaintzen eman duen agurea hil ostean, kontatu behar al dio semeari bere aitak Pinocheten estatu kolpean lagundu zuela? Esan beharko dio, agureak kontatu bezala, zortzi seme-alaba dauzkala munduan barreiatuak?


Akelarreak ipuineko protagonistak argazki bat aurkitu du bere aitak aspaldi idatzitako liburu baten orrialdeetan galduta. Sarak ez daki zer egin. Esan beharko lioke, 80 urte bete dituen eta bere senar hilaz maitemindurik jarraitzen duen bere amari, aitak beste emakume bat maite zuela?

Gau hartan hirurek korrika egin zuten *Sirena-hotsak* aditu zituztenean, baina Julen izan zen bakarra gartzelan amaitzen. Atzekoz aurrerako bidai etengabea, bakoitzaren oroitzapenez osatutako collage egituraren bitartez, aditzera ematen zaigu gau hartan geratutakoaren egia zatiak besterik ez direla geratzen. Ipuina garatzeko erabilia izan den egitura hautsiak berak, argi uzten du inoiz ez dela egia oso bat izango.

Tratatzen diren gaien aldetik entretegarria, egitura aldetik landua, sortzen dituen burutazioengatik liburu interesgarria. ■

**Saioa
Ruiz Gonzalez**





Atzoko eta gaurko musikaren irakurketa aberatsa Hala Bedin

80KO HAMARKADAN militar, elizgizon eta *arriba-español*ak marka zuen Gasteiz hartan kale-agerraldi ateoak egiten hasi ziren, eta polemika handia piztu zuten. “Gaizki ikusitako” jende multzo hartatik batzuk kontrainformazioaren aldeko hautua egin zuten, hala sortu zen *Resiste!* fanzine aitzindaria, eta Hala Bedi irrati librea ere orduan jarri zuten martxan. Berehala batu zitzaizkien bide lerro antzekoan zebiltzan punk eta rock elementu erradikalenak eta elkar elikatzen hasi ziren: taldeek irratiko mikrofono eta uhinak zabalik zituzten; eta musikari horiek Hala Bedi moduko ekimenak babesten saiatzen ziren. Horra hor, esaterako, 1987an Gasteizko irratien alde Vomito, Kortatu, La Polla Records eta Quemando Ruedas taldeek egindako kontzertua. Ez zen bakarra izan, baina garrantzia hartu du, irratia berak zuzenekoan oinarritutako maketa argitaratuko zuelako orain 10 urte, eta CD formatuan ere eskuragarri jarri zuen.

Rockak, kale-musikak beti izan du leku pribilegiatua, merezitakoa, Hala Bediko uhinetan. Bai irratia espezializatueta (Pesadilla del Punk Rock, Hiru Kortxea...) zein programazio orokorrean. Belaunaldi belaunaldi, eraso guztiei aurre egin eta hazi egin da Hala Bedi; eta hainbat belaunaldi batu ditu bere baitan. Horren adibide dira 30. urteurrenerako prestatutako disko-bilduman aurki ditzakegun protagonistak eta horiek aukeratutako kanta gogoangarriak.

Johnny & Josephek Kortaturen ‘Kolpez kolpe’ri ukitu hillbillyagoa eman diote, hitz berriak sortuz eta Hala Bediren urteurreneko kanta bilakatu. Iraganen Euskal Herriko rhythm&bluesaren errege izan zen The Allnighters berriki berpiztu da eta

Hala Bedi. 30 urte kolpez kolpe
Askoren artean

Bonberenea Ekintzak, 2013

Eskorbutoren ‘Cuidado’-ri arrisku-puntua kendu eta groove-a gehitu dio, dantzagarri bihurtuz. Berako Sixty Sexers taldea Euskal Herriko rock-and-rollaren aita den Niko Etxart omendu du merezimendu osoz, ‘Zkrax’ kantaren bidez. Sakanako Hesian taldeak 90eko hamarkadako ‘Amets bat’ hit-a –Alaitz eta Maiderrera– gaurkotu du, erritmoa gehituz. Anai-Arrebak disco taldeak M-ak taldearen ‘Barkatu Ama’ klasikoa ekarri du gazteagoen belarrietara. Indarrap-ek Gozategiren ‘Pakia Beyau’ erabat eraldatu du hip-hopera eramanda. Garik aspaldiko bidelagun RIP omendu du ‘Mundo muerto’-ren gordintasuna biluztasunetik landuta. Eskerrak Betagarrikerreskatatu duen Hala Bedi eta Gasteizko idiosinkrasiaren eredu parekazina den ‘Rula’, Potatorena. Ortophonek soul bihurtu du La Polla Recordsen ‘Tú alucinas’. Izaki Gardenak-ek intentsitatea eman dio Ruper Ordorikaren ‘Ene begiek’ ederrari. Neubat taldeak Negu Gorriak-en ‘Zipaioen matxinada’ pisutsuago bihurtu du. Bronzek punch berezia, rockeroagoa, ezarri dio Itoizen ‘Hegal egiten’ hunkigarriari. Sumision City Blues taldeak blues-rock irakurketa egin dio Zuloak proiektuaren ‘Artzai Ona’-ri. Willis Drummond taldeak ‘Pakean utzi arte’ gaurkotu du. Eta, azkenik, Bap!-en ‘Plastikozko janariak’ kutsu orkestral amorratuz jantzi du Xabier Montoiak. ■

Iker Barandiaran





Euskal Herria ezagutuz

MAÑARIA-ABADIÑO (BIZKAIA)

Saibi, Urkiolako behatoki txikia

Parke Naturalaren erdian kokatuta, Urkiola gainaren mendebaldean dago Saibi mendia (946 m), Eskuagatzeko mendilerroaren muturrean. Mendi erraza, Saibik ez du bere kareharrizko senideen ospea, eta pilota-soraa dirudi bere borobiltasun berdean. Baina haren gailurretik begietara zabaltzen den ikuspegia nekez ahaztuko dugu.

Testua eta argazkiak:

| IDOIA GARZES |




HARROBIEK zuloz jositako Mañaria herritik abiatuko gara. Dena den, txangoa laburtu nahi izanez gero, Urkiolako gainetik ere egin daiteke. Herrian sartu bezain laster –Durangotik gatzela– ezkerretara dagoen aparkalekuan utziko dugu autoa. Botak jantzi, errepidea gurutzatu eta atzera egingo dugu, gorantz doan bidea hartuz –harrobia eskuinera lagata–. Mañaritik igarotzen den GR-229 ere har dezakegu, Mikeldiko idoloa aitzakia hartuta Durangaldeko ibilbidea egiten duena.

Aldapan gora, Mañaria behean utziko dugu. Errepideari jarraituz, Larreakapanaga baserrira iritsi eta eskuinean dagoen pistan gora egingo dugu. Hauspoa berotuta, harri-metatxoei erne, eskuinera egingo dugu beti, Untzillatx parean dugula. Hego-ekialderantz jo behar dugu, pinua ateratzeko pistetatik, Untzillatx harkaiztzarraren hegalean zehar ibiliz. Altuera irabazi ahala eta atzera begiratuta, harrobiak begibistan utzitako Mugarraren erraiak ikusiko ditugu, eta haren ezkerretara Mugarrikolanda lepoa, Artatxagana eta Leungana.

Gatzagietako karobia

San Martin ermitan GRarekin bat egingo dugu. Urkiola 3,6 kilometro-ra dugu, baina pausoa luzatu aurretik, jentilen kondairak gordetzen dituen ermita eta haren atzean dau den haitzuloak ikus ditzakegu. Aurrera egingo dugu Untzillatxeko magaletik eta, Otxaortagako iturrian egarria asetakoan, gure xede den Saibigain ikusi ahal dugu. Elosuko txabolak adieraziko digu izen bereko lepoa hurbil dugula. Zurezko zutoinak Urkiolarako bidea seinalatu arren, Untzillatx aldera egingo dugu bista bila. Eskalatzailen gustuko paretatzarra dugula parean, eskuinera so eta urrutian Anbotoko gailurra doi-doi antzemango dugu, Asuntza lepoaren eta Urkiolamendiren atzean. Atzera egin eta laster pistak beherantz egingo du, Urkiolara doan erreperiderantz.

Gatzagietako karobi ederra zain dugu. XIII. mendean jardunean zela dioten agiriak daude. 1670ean hantxe egin zuten Urkiolako elizako



erretaula eraikitzeke karea, eta horretarako Untzillatxetik ateratako kareharria erabili zuten. Errepidearen ertzetik aurrera, Santigastelu baserritik igaro eta, Urkiolarako bidea seinalatzen duen zutoinari

Urkiola toponimoak urkiaren kortabaso inguruan egiten zen lana adierazten badu, zergatik dago hain urki gutxi inguruan?


kasu eginda, gorantz egingo dugu kalbarioko hiru gurutzeekin topo egin arte. Han, berriz, maldan gorako nekeak ahaztaraziko dizkigun ikuspegiak gozatu ahal izango dugu.

Urkiolako urkiak

Hasieran urkiek eta ondoren pago lepamotzek osatutako korridoreari

helduko diogu. Eta Urkiolan urki gutxi dagoen errezelok hartuko gaitu. Izan ere, Urkiola toponimoak basoan egiten zen lana, urkiaren kortabaso inguruan egiten zen beharra, adierazten badu, zergatik dago hainbeste pago lepamotz eta hain urki gutxi inguruan? Urkiak trantsizio basoak izaten dira, urkia espezie kolonizatzailea –aitzindaria– baita. Suteek kiskalitako inguruak birpopula ditzake, bere hazkunde azkarra dela eta. 30 metroraingo altuera izan dezake eta, argia sartzen uzten duenez, haren adaburuean beste zuhaitz batzuk haz daitezke, pagoak esate baterako. Eta pagoek baso helduak sortzen dituztenean urkia ordeztzen dute.

Urkiak berezi egiten duen beste ezaugarri bat ere badu. Haren azalak zilarraren kolore zurixka du eta horregatik, sarritan, lur sailen



Goiko argazkian, Urkiolako santutegi ospetsua, amaitu gabeko eraikina. Behean, Gatzagietako karobia.

mugarri natural gisa erabili izan da. Gaur egun Urkiola inguruan ikusten ditugun urki gehienak 1970ean Santutegiaren ardura hartu zuten misiolariak landatu zituzten.

Urkiolako “meteoritoa”

Basoan barneratzen den korridorea-ri helduko diogu, bada, eta Santo Kristoko ermita topatuko dugu eta aurrerago, santutegira hurbilduz, elurzuloa. Aldamenean San Antonio Urkiolakoa dago, eta haren parean “meteorito” ospetsua. Aspaldiko jendeek tximistarriztat hartu, eta eguzkiari jausitako ezpala zelakoan gurtzen zuten. Egungo jendeek, zientifikoek behintzat, harri puskatzat baino ez dute, ordea. Mirespen handirik sortu ez, eta “puding” izen arrunta duen sedimentatutako mineralen konglomeratua dela diote. 1929ko azaroaren 29an ipini zuten “meteoritoa” egun dagoen tokian, Urkiolako erretoreak hala aginduta. Izan ere, lehenago inguruko mendi batean zegoen.

Ezkundu nahian dabiltzanen eta memoria kaskarra dutenen zaindaria omen da San Antonio, eta badaezpada ere bizpahiru buelta eman dizkiogu harritzarrari; birak zenbat eta zein norabidetan eman behar diren oroitzeaz ahaztu eta soltero jarraitzen dugu, ordea. Harri ezkontzaginaren ondoan Gernikako arbolen kimua dago, 1854. urteko San Antonio egun batez Iparragirrek Euskal Herrian Gernikako Arbola kanta lehen aldiz abestu zuela oroitaraziz. Santutegian sartu-irten bat egin eta eraikin amaitu gabeari harrituta baino ezin zaio begiratu. XX. mendearen hasieran, berotasun erlijioso handiaren giroan proiektatutako eraikin gaitza behin betiko amaitu gabe uztea erabaki zuten. Antza, garai hartan ere krisiak ortozik.

Saibiko gudua

Gasteizako errepidea gurutzatu eta ostatuen artetik igarota, Saibi aldera egingo dugu PR-BI 83ko marka zuri-horiei jarraituz. 2,3 kilometro baino ez zaizkigu geratzen tonorrerako, eta atzera begiratuta izugarrizko paisaiak hunkituko gaitu. Pistari lotuz egin daiteke Saibira, edota



Santo Kristo basiliza.

Barazar aldera markatzen duen seinale-zutoinean eskuinera egiten duen bidezidorra hartuta. Laster ikusiko dugu Saibiko gailur borobilko gurutzea.

Eusko gudarien aldeko oroitarria da gurutzea, Saibigain frankisten aurkako erresistentzia-lekua izan baitzen 36ko Gerran. 1937ko apirilaren 6tik 15era borroka latzak izan ziren bi bandoen artean, eta azkenean faxistek irabazi zuten. Gurutzearen alboan gutunontzi bi, zutoin geodesikoa eta orientazio-

mahaia aurkituko ditugu. Eta begien gozagarri, Anbotoko mendilerro osoa. Arrietabasoren atzean Mugarra zulatua, Untzillatx, Axtxiki, Alluitz, Infernuzubi deitzen duten sakana eta Anboto. Urrutira, Aizkorriko mendilerroa eta Aralar ere ikus daitezke. Buelta emanda, berriz, Gorbeia eta Lekanda.

Atzera egiteko ordua da. Guk, dena den, aurrera jarraitu dugu. PRari lotu, hesiko ataka igaro eta ezkerreantz, beheantz eginda: Deabru Atxa eta Arrietabaso artean

dauden mendiak egin ditugu. Eta 1871n Bizkaiko azken hartza akabatu zuten Eskuagatx eta Ezkillar mendien azpialdeko pistatik itzuli gara Mañarira. Baina hori beste txango bat da. ■



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

BIZKAIA BIZIA

PERTSONAIA- REN IZENA		GARRASIA, OIHUA		OLIBAREN ZUKU	 DANI BLANCO	BEREHALA NAFARROA- KO HERRIA		DEI EGIN KATALUNIA- KO DANTZA		MIKEL..., GALDA- KAOKO PILOTARIA		
IBILALDI ATSEGIN		DIRU									ETSI	
ASTUN ARERIO, AURKAKO							KOADERNO KOKAINA					
				NAZIOARTE- KO OLINPIAR BATZORDEA LAUSO, GEUN		KARREZ BETEA BERRIKETA GOGAIKA- RRIA						
BAT ERROMATAR ZENBAKIZ ONGI		GOGOARI ATSEGIN ZAIONA DOLU					DAUKAN MIN BIZI					
			KALKULA- TZEKO TAULA IRAKINALDI						SAILBURU (LABURDURA) HALABER			
LARREA, ZELAIA	ORBAN ANDON..., BERTSOLARI GIPUZKOAR				LAINO AZPI NAFARROA- KO MENDILE- RROA							
						BARE, LASAI SENDO, FINKO					ARGITASUNIK GABE	
GAREN HAUEK SUAK			ESERLEKUA, JARLEKUA SORTU ZINTUENA					E.H.-KO MENDIA ORE JANGARRI				
				PERTSONAIA- REN ABIZENA No								
OSO TXIKI FRUTA- ARBOLA					MEHETU DEUTERIOA							
							HITZARMEN					



	M	H			T	D	L					
P	A	S	E	O	K	S	E	D	A			
E	T	O	I	L		K	A	I	E	R		
I	G	O	K	O	N	K	A	R	T	S	U	
O	N	D	O	A	B	A	K	O	A	S	B	
		O	R	I	N	L	A	I	N	O	P	E
B	E	L	A	R	D	I	A	N	A	R	E	
G	U	A	U	L	K	I	A	O	R	I		
L	A	M	A	K	L	A	R	Z	A	B	A	T
N	I	M	I	N	O	M	E	H	A	T	U	
B	A	N	A	N	O	N	D	O	I	T	U	N

Dantza egizu niretzat

ARRIAGA ANTZOKIKO eszenatokian hartu naute Damian Muñozek eta Virginia Garciak, *Best of you* azken lanaren entseguetan ari direla. Clara Peya musikari gaztea, konpainiak fitxatu berria, Steinway koladun piano beltzean jarrita dago. Musika-ri kataluniarrak konposatu du lan berrirako musika, eta pianoz zuzenean laguntzen ditu Garcia eta Muñozen mugimenduak. Eszenatokitik begiratuta, antzokiko butaka patioak jatetxe txinatarra dirudi, argitxo gorritz josita.

Dantzari gasteiztarrok 1996an sortu zuten La Intrusa dantza garai-kide konpainia, eta ordutik hainbat antzezlan taularatu dituzte, artean *Ataraxia*, *Tres tristes Streaptes*, *Delta Victor* eta *Manso Rojo*. Katalunian eta Italian bizi dira halere, euren lana Euskal Herrian garatzeko ezintasunagatik. Dena den, lan berri bat sortzen duten bakoitzean itzuli egiten dira, “Euskal Herrian gutxitan programatzen gaituzten arren”, Garciak dioenez. Mexikon eta AEBetan barrena bira egin dute oraintsu, eta hurrengo urterako ez zaie hitzordurik falta, Katalunian eta Mexikoko hainbat jaialditan erakutsiko baitute azken obra.

Azaro bukaeran aurkeztu zuten *Best of You*, Bilbon, Arriaga antzokiaren ekimenez antolatzen den *Gelatoxa* programan. Abenduaren 28an izango da antzezlan ikusteko hurrengo parada, Gasteizen, Baratzeta aretoan. *Gelatoxa* programak badu berezitasunik: formatu txikiko ikus-



kizunak izaten direnez, antzokiko eszenatokia publikoarekin partekatzen da. Kasu honetan, eserlekutik metro eskasetara gozatu genuen dantzarien mugimenduez eta zuzeneko musikaz. Banaka, binaka eta hirunaka aritu ziren dantzan, Clara Peya musikari gazteak, pianoan duen abilezia erakustez gain, dantza pauso batzuk ere eskaini zituen, eta Damian Muñoz dantzariak ere jo zuen une

Best of You. La Intrusa.

Diziplina: Dantza garaikidea. **Konpainia:** La Intrusa.

Sorkuntza eta zuzendaritza: Damian Muñoz eta Virginia Garcia.

Dramaturgia: Virginia Garcia.

Interpreteak: Damian Muñoz, Virginia Garcia, Clara Peya.

Musika: Clara Peya.

batez pianoa –Peyak emandako eskolak hartuko zituen seguruen–.

Virginia Garcia gogotsu murgildu zen, kemena eta hauskortasuna hein berean erakutsiz. Indar handiko dantzaria bada ere, oin puntetan ibiltzen da, etereo du dantzatze modua.

Tentsioaren eta barealdiaren inguruko pieza da *Best of You*. Hitzak ere, badu tarte obra honetan. Hona hemen Peya eta Garciaren arteko elkarrizketa: “Hori al zen onena zugandik?/ Bai./ Hori da? Besterik ez?/ Besterik ez./ Neuk zerbait biziagoa espero nuen./ Definitu zer den bizitasuna./...(dantzan egiten du bortizki)/ Hobeto sentitzen zara?/ Bai./ Lasaituta?/ Ez./ Zer behar duzu?/ Tentsioa./ Zertarako?/ Ez jausteko”. ■

Myriam Garzia



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



Bizimodu osasungarria al daramazu? (eta II)

OSASUNA sukaldean ere irabaz –edo gal– daiteke. Gure gizartean ohikoa den bizimoduagatik, eta lan-kontuak direla medio, normalean ez dugu sukaldean aritzeko denbora gehiegi izaten, baina hori ez da aski arrazoi elikadura arloan har daitezkeen hainbat erabaki albo batera uzteko.

Horregatik, elikadura orekatua izan dadin, baita presa handiarekin bagabiltza ere, hozkailua eta despentsa ondo hornituta edukitzea komeni da, urteko sasoi bakoitzean garaiko produktuak erabiliz. Abiapuntu horrekin, hemen daukazu proposamen batzuk:



MARISA DEMEGLIO-CC BY

Mazedonia on bat egunero jan beharreko hiruzpalau fruta aleak hartzeko modu ezin hobea da.

● Entsalada on

bat. Arrozarekin edo pastarekin egin daiteke, baina atuna, arrautza egosia eta barazki batzuk gehituz gero, otordua osatzeko plater bakarra aski izan daiteke.

● Arraina mikrouhin labean.

Arrainak bitaminak emango dizkigu, eta labeak, berriz, bizkortasuna. Goarnizio moduan, ilarrak edo letxuga osagarri bikainak dira.

● Mazedonia gozo-gozoa.

Egunero-egunero hartu beharreko hiru edo lau fruta aleak kontsumitzeko modu ezin hobea.

● **Batidoak, irabiatuak.** Minutu batean prestatzen dira, bitamina ugari ematen digute, eta umotzen edo ia galtzen hasia dagoen fruta

aprobetxatzeko aukera ere badira.

Azken aholkuak

Badira, aurrez aipatutakoez gain, aholku orokor batzuk, behin eta berriz errepikatuagatik ere jendeak gutxitan betetzen dituenak. Hona zerrendatxo bat:

● **Prebenitzea hobe.** Osasunahasmendu batzuk “isilekoak” dira, ez dute aparteko sintomarik edo seinalerik ematen aurreneko faseetan. Horregatik, aldian behingo osasun-azterketa eta berrikuspenak, pertsonaren adinaren eta sexuaren arabera aldatuz doazenak, oso baliagarriak izan daitezke baliz-

ko gaitz horiek detektatu eta ahalik eta lasterren tratatzen hasteko.

● Ez hartu botikak zure kabuz.

Botikak medikuaren agindurik gabe hartzea kalterako izango da gehienetan, ez dagoelako inolako kontrolik eta botika horiek albo-ondorio kaltegarriak sor ditzaketelako.

● Handitu zure defentsak.

Itxiokorri (*Ononis spinosa* L.) izeneko sendabelarrak sistema immunitarioa indartzen du, globulu zuriek bakterio eta birusen kontra jarduteko duten gaitasuna estimulatu du eta. Egunero bi katilukada infusio edanez, infekzioak harrapatzeiko arriskua gutxituko da. ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Hazi tratuan

FRUITUETAN haziak hedatzeari utzi dio pikondoak (*Ficus carica*). Haginari (*Taxus baccata*), lizarrari (*Fraxinus excelsior*), arteari (*Quercus ilex*), intsusari (*Sambucus nigra*) eta zeregin espirituala izan duten zuhaitzei gure etxearen aldamean toki esanguratsuena kendu zienetik, antzutu egin du bere burua. Irratian dudak aholku programan, behin batean, etxe ondokoan pikondoak dituzten etxeetan zoritxarra jabetzen dela iruditzen zitzaioela esan zuen entzule batek. Ez zait berehalakoan ahaztuko.

Itsui-itsuan, zuri eta niri utzi digu pikondoak bere espeziea ugaltzeko lana. Hazia baino klonazioa gustukoagoa du; erabaki horrek prezioa berarekin du. Urtea joan eta urtea etorri haziak ontzea baino askoz merkeagoa da; adarrak lurreraino makurtu, itsatsi, eta beste arbola bat balitz bezala hazi. Horrek ere adarrak kakotu eta lurreraino okertu... Bukaerarik ez duen izaki kloniko izugarria sortzeko gai da. Horrela hazi da munduko bizidun handienetako bat, Indiako Kadiri hirian bizi den *Ficus benghalensis* bat; 21.000 metro koadro harrapatzeraino hazi da 550 urtean, eta Thimmamma

Marrimani izena du. Ez naiz harekin endredatu-ko, lehengo mendean berari buruz hitz egin nuen txoko honetan Zubaitz asesinoak izeneko artikuluan.

Pikondoak adarra kakotuz eta makurtuz, ugaritu behar dugunean geuk zer egin behar dugun erakusten du. Neguaren amaian, izerdi berria mugitu aurretik, adar kakoa moztu, aitzur-rrarekin zanga bat ireki eta ia adar osoa lurpean sartu kakoaren puntta, bi edo hiru begiekin kanpoan utzita. Lurpean geratzen diren begiek zainak emango dituzte, itsatsi egingo da, eta bistakoek, hostoak. Horra pikondo berria.

Hazian sinesten duenik ere bada, halere. Bitxi eta diamante saltzaileek. Tratulari fariseu horiek etekina emango dieten gaia neurtzeko kilatea erabiltzen dute. Kilatea *Ceratonía siliqua* algarrobondoaren hazitik dator. Algarroboak lekan ematen dituen haziak oso berdinak dira, nonbait. Hazi bate-tik besterako aldea oso txikia iza-



CHIXOY-CC BY SA

Algarrobondoaren (*Ceratonía siliqua*) lekak.
Barruko haziak elkarren ia berdinak dira, horregatik erabiltzen ziren neurri modura.

nik, neurri bezala hartua izan zen. Hebreeraz *kharow*, arabieraz *kharoub*, grezieraz adartxoia esan nahi duen *κάρδιον*... Zikulu saltsa horretatik abiatuta, azkenean arabiarren *qirat* hitza barreiatu da “pisu txiki” esanahiarekin. Algarrobondoaren adar itxurako leka, lekaren barruko alearen pisua... Azkenean, diamanteen eta bitxien kilateak...

Oso berdinak izango dira, baina, saltzeko hazi batzuk eta erosteko beste batzuk jarriko zituzten bitxi-tratanteek balantzan. ■




Ahuakatea

Kantabria aldean izan naiz aspaldiko lagun batzuei bisita egiten. Gipuzkoako ekialdetik hara kliman dagoen aldeak, eta horrek landaredian duen eraginak, beti arreta pizten dit. Gipuzkoatik Bizkaira eta Kantabriara klima berotuz doa. Palmerak, garrazkiak... beste poz bat nabaritzen zaie han. Eta lagunak etxean ahuakateondoa (*Persea americana*) fruituz gainezka. Arbolan heldutako ahuakateak jan ditugu... Imajina ezazu gure poza. Inoiz baten batek esan izan dit: garai batean, gure herrian, jauregi batean ba omen zen ahuakateondo handi bat, eta haren fruituak sonatuak omen ziren eskualdean. Bizitzen ari garen klima aldaketa dela eta, ale batzuk aldatu beharko ditut. ■



JAKOBA ERREKONDO

Mende bat hitzak gurutzatzen



NEW YORK, 1913KO ABENDUAREN 21A. Arthur Wynne izeneko kazetari ingelesak *Word-cross* izeneko joko berria argitaratu zuen *New York World* egunkarian. Wynnek berak aitortu zuenez, aitona txikitan erakutsitako “lauki magikoak” izeneko jokoan oinarritu zen denbora-pasa berria asmatzeko. Gainera, lehenago ere antzeko jokoak argitaratu ziren. *St. Nicholas* haurrentzako aldizkariak hitzak laukietan idazteko jokoak argitaratu zituen 1873an. Eta 1890ean, *Il Secolo Illustrato della Domenica* aldizkariarentzat Giuseppe Airoidik *Per Passare il Tempo* jokoak prestatu zuen: lehenengoz, hitz-jokoak definizio bertikalak eta horizontalak elkarrekin gurutzatzen zituen. Baina joko simple eta mugatua zen, lau hitz bertikal zituen eta beste lau horizontal, eta jakina, hitz guztiak luzera berekoak ziren, lau letrakoak.

Wynnek, 1913ko Santo Tomas egunean, jokoaren arrakastan funtsezko eragina izango zuen elementua erantsi zuen: hitzak bereizten zituzten

hutsuneak. Lauki hutsei esker edozein luzerako hitzak sar zitezkeen, eta jokoa nahi adina zabaldu.

Baita ederki zabaldu ere. *New York World* Wynnen hitz gurutzatuak aste-ero argitaratzen hasi zen, eta beste egunkari batzuek bide hari heldu zioten urte gutxian. *Boston Globe*, esaterako, 1917an hasi zen irakurleei hitz gurutzatuak eskaintzen. Baina fenomenoak 1920ko hamarkadan egin zuen eztanda. 1921ean New Yorkeko Liburutegi Publikoko arduradunak kexu ziren “hitz gurutzatuen eroaldiak liburutegiak jo” zituelako. Haien esanetan, moda berriaren zaleek liburutegiko hiztegi eta entziklopediak monopolizatu eta liburuen “egiazko” erabiltzaileak uxatzen zituzten.

1924an Simon and Schuster argitaletxeak lehen hitz gurutzatu liburua argitaratu zuen. Sukarra areagotu egin zen. Paradoxikoki, gaur egun hitz gurutzatuengatik ospetsua den *The New York Times* jokoaren aurkako gurutzadaren lehen lerroan zegoen. 1924an bertan, jarduerak “garapen mentalean inolako eraginik ez” zuela zioen egunkariak. Hurrengo urtean zera adierazi zuen: “Zorionez, hitz gurutzatuak onuragarriak ala kaltegarriak direneko galderak ez du erantzunik behar. Eroaldia azkar itzaltzen ari da, eta hilabete gutxian erabat ahaztuta egongo da”. Hilabete gutxi horiek joan ziren, baita urteak ere, eta 1929an moda erabat desagertu zela argitaratu arren, Wynneren jokoa aurrera egin zuen. *The New York Times*en setakeriak 1942ra arte iraun zuen. Orduan hasi ziren oraindik munduko hitz gurutzatu prestigiodunenetakoak —eta zailenetakoak— direnak argitaratzen.

Ordurako Robert Stilgenbauer hasia zen inoizko hitz gurutzatu zabalena prestatzen. Hamar urteko lana 1949an argitaratu zuen, eta 125.000 kopia saldu zituen. 3.185 definizio bertikal eta beste 3.149 horizontal ditu, eta gaur arte ez du inork osatu. ■




Arrastoak Erromatar senatua esklaboen eskubideen alde?

SENEKAK K.o. 55. urte inguruan *De Clementia* lanean jaso zuenez, behin, Erromako senatuan, esklaboen janzkerari buruzko eztabaida izan zen. Senatari batek proposatu zuen esklaboek jantzi bereziak eramatea, begi hutsez herritar askeengandik bereizi ahal izateko.

Gainerako senatariek proposamena baztertzea erabaki zuten, baina ez neurria diskriminatzailea iruditu zitzaielako. Senekaren hitzetan, “berhala garbi ikusi zen esklaboak zenbat ginen zenbatzen hasteak ekarriko zukeen arriskua”.

Hau da, batzuk eta besteak itxuragatik erraz bereizi bazi- tezkeen, esklaboak berhala konturatuko ziren libreak baino askoz gehiago zirela, eta, beraz, matxinatzeko arriskua —eta erreboltak arrakasta izate-koa— areagotuko zatekeen. ■



PETER PAUL RUBENS

Senekak (K.a. 4-K.o. 65) jaso zuen esklaboen janzkerari buruzko eztabaida laburraren berri.

FRANKISMOAREN AMAIERA

Carrero Blancoren hilketaz zer esan zuen oposizioak?

1973ko abenduaren 20an hil zuen ETAk Carrero Blanco almirantea Madrilén. Diktadurako aparatuentzat eta burgesiarentzat ustekabeko kolpea izan zen Francoren ondorengotzat jotzen zenaren heriotza. Oposizio antifrankistak atentatu hartaz iritzi ugari plazaratu zuen. Batzuk kritiko agertu ziren, beste batzuek ordea, “eutsi ezinezko poza” adierazi zuten.

| JOSU CHUECA |



Askorentzat sinesgaitza zen ETak halako atentatu bat antolatu ahal izatea. Leherketak krater handi bat utzi zuen Madrilgo Claudio Coello kalean eta Carreroren autoa ondoko eraikinaren teilaturaino iritsi zen.

DUELA 40 URTE, Francoren kolaboratzaile leialenetakoa zen Luis Carrero Blanco hil zuen ETAk. Bera zen, diktadorearekin batera, urte gehien agintari arduetan zeraman militarra, 1940az geroztik, hain zuzen.

1973ko ekainean izandako gobernu aldaketaren karira, Francok gobernuburu izendatu zuen, eta han-

dik astebetera Nafarroako greba orokorrari aurre egin behar izan zion. Egunean eguneko jardunez gain, bere eginkizunik nabarmenena Juan Carlos Borboiren aldeko operazioaren bidez Franco osteko diktadurari eustea izan zen. *Caudilloa* desagertutakoan, “uztailaren 18ko monarkia” abiarazteko eta sendotzeko, Luis

Carrero izanzen zen erregimenaren erpin berria.

Santoñako almirantea, Francoren gisa militar izanik, diktadura horretan babesten ziren azpisektore guztien gainetik zegoen, baina aldi berean, gertu egon arren, ez zen esparru politiko zehatz bati lotu. Gauza zen erregimenaren muturreko sektore



Oposizio antifrankistaren aldizkari eta barne buletinetan oihartzun handia izan zuen Carrero Blancoren hilketak.

urdienekin bat egin, eta aldi berean, Opus Deiko teknokrata zahar eta berriak laguntzeko. Beraz, Francorik gabeko erregimen frankistaren ardatz politiko-ideologikoari eusteko premu paregabea zen.

Baina hori dena zerura bidali zuen bere aurka egindako atentatuak. 1973ko abenduaren 20an, ETA erakundearen “Txikia” taldeak Madrilgo bihotzean egin zuen eraso ikusgarriak ustekabean harrapatu zituen diktadurako aparatuek eta Espainiako burgesiaiko eragileak.

1970az geroztik, gero eta nabarmenagoa zen erregimenaren krisia. Langileen grebak, ikasleen mobilizazioak, hainbat sektore –Elizako talde ugari eta alegialitatean ari ziren zenbait demokratikistak– diktaduratik urruntzea... Atentatu horrek osagai larria ekarri zuen: Francok jada ez zuen ordezkorik. Hamarkada askotan agintean bertan goxo egondako burgesiar, bat-batean, espero ez zuen hutsunea jauzi zitzaion.

Ezuste hori ez zen txikiagoa izan oposizioko erakundeetan. Krisi ekonomikoaren lehen zantzuek eta langileen errebindikazioek negu beroa iragartzen zuten. Gainera, abiatzeaz zeuden hainbat epaiketek –nagusiki “1001” deitutako CCOOren buruzagitzaren aurkakoak– talde ezkertiarren arreta eta ahaleginak bereganatu zituzten. Baina abenduaren 20ko goizaldean izandako eztandak hark

hori guztia ere alboratu zuen; Francoren ondorengotzaren auzia eztabaida politikora ekartzeaz gain, atentatu hartaz eta jardun armatuaz mintzo ziren denak. Hasierako sinesgo-gortasuna gaintu ondoren, erbestean zeudenak eta baita Estatu barruan klandestinitatean zebiltzanak ere, jarrera eta iritziz oso desberdinak azaldu zituzten Carrero Blancoren hilketaren aurrean.

Atentatuaren berri izan bezain las-ter, goi mailako hainbat buruzagik adierazi zuen ezinezkoa zela ETA moduko erakunde batek tamaina hartako ekintza antolatzea. Eusko Jaurilaritzaren lehendakaria zen Jesus Maria Leizaolak, esate baterako, “falsutzat” jo zuen ETAk kaleratutako errebindikazio agiria. Erakunde horren ordezkaritza joan zitzaionean eurek egin zutela esatera, aitortu

Orduko buruzagi troskistek 1973ko atentatuari sostengua eman zioten, hain justu hainbat urte geroago ETA zorrotz kritikatu izan duten horietako zenbaitek

behar izan zuen egilea ETA izan zela, eta bide batez, Eusko Jaurilaritzarekin inolako harremanik ez zuen erakundea zela azpimarratu zuen.

Tematiago aritu ziren, bai egiletza ukatzen bai kritikatzeko, Espainiako Alderdi Komunistako partaideak. Parisen inprimatzen zen *L'Humanité* egunkari komunista ospetsuaz baliatuz, ezbaian jarri zuten ETAREN egiletza, nola zuzena hala zeharkakoa. Erregimen diktatorialaren krisia

Carreroren heriotzarekin abiatuta zegoela onartu ostean, horrela zioten: “Oso harrigarriak dira Carrero Blancoren heriotzaren gorabeherak... Gaur arteko azalpenak ilunak dira eta errezeloa izateko modukoak... Oraindik ez da jakin hilketa erabaki duen eskua zein ote den. Nolanahi ere, ofiziozko jende saiatua da hori, ongi hezitakoa; ez da, itxura denez, atentatua arinki aitortua duten ‘amateur’ horien lana. Hori eginez benetako egileak ezkutatzen dituzte”.

Euskadin bertan eta Bordelen egindako prentsaurrekoan, ETAk zehaztasun oparoekin adierazi zuen atentatuaren ardura. EPK-k *Euzkadi Obrera* aldizkarian kritikatu egin zuen ordea, “gutxiengo terrorista baten ekintzatzat” joz eta berretsiz “Madrilgo leherketaren inguruan alde ilun eta susmagarri asko” zeudela eta beharrezkoa zela “egiaztatzea zeintzuk diren egileak eta batez ere ekintzaren akuilatzaileak”. Azken finean, Alderdi Komunistaren arabera, atentatu horrek ez zuen zerikusirik Euskal Herriaren interesekin, atentatuaren aitzakiaz errepresioa handitu egin baitzen.

Ezker muturreko talde batzuek ere kritikatu zuten ekintza, apalago bazen ere. Nafarroako eta Gipuzkoako hainbat eskualdetan oso errotuta zegoen ORT-k esate baterako, bere agerkari *En Lucha*-n kritikatu zuen “1001 epaiketa” hasi behar zen egunean atentatua burutzea. Maoista horiek, ETAREN esku- tik garatzen ari zen “indarkeriaren bide antzuar masen ekintzen aldeko indarkeri iraultzailea” kontrajartzen zioten, eta ETAk har zitzakeen erabakien gainean eragiteko aukerarik ez zutela aitortu ondoren, honako gogoeta luzatu zuten: “Hala eta guztiz ere eskubidea dugu ETA(V)-ri eska- tzeko bere ekintzak egiteko data ego- kiagoak har ditzala”.

Eta troskoek?

Urrun zeuden beste erakunde batzuk kritika apal horietatik. Aitzitik, hainbatek babes ia osoa eman zioten ETA(V)-ren ekintzari, haien artean nabarmendu zen LCR-ETA (VI). Erakunde hori eratzeko elkar- tu berri ziren Espainiako LCR zein

ETA(VI)-ko troskistak eta azken horiek, jakina denez, ETArekin partekatuak zituzten urte askoan militantzia eta gogoak. VI. asanbladaren abagunean, zatiketa etorri zen eta eztabaidak eztabaida, gogoeta ugari eskaini zizkion bere aldizkarietan (*Berriak* eta *Zutik*) nazionalismoaren auziari, baita borroka armatuari ere, bereziki ETArekin jarduera militarista kritikatu. Baina oraingoan Carreroren aurkako atentatuaren alde azaldu ziren. *Zutik*-en honakoa zioten hitzez hitz: “ETA VI-LCR-k hiltzaile Carreroren erailketa argi eta garbi babesten dugu, azken urte hauetan beren arteko sei borrokalari hiltzeari erantzunaz, ETA V-garrenaren errepresalia zuhur eta zuzena dela kontsideratzen dugularik” (sic).

Era berean, Espainiako Estatu mailan kaleratzen zuten *Combate* agerkarian, erakunde horren buru politikoaren adierazpena argitaratu zuten ekintzari babesa adierazteko: “Carreroren erailketak masak mobilizatzeko duen pizgarria eta bere desagertpenak klase menperatzailearen baitan izan dituen ondorio objektiboak kontuan harturik, atentatuaren ondorioak positiboak direla uste dugu. Hori dela eta, ekintza honeki gure babesa erabatekoa da”.

1970eko asanbladaz geroztik, ETA (VI)-koak ahaleginak egiten ari ziren aktibismoak alde egin eta langile mugimenduaren baitan txertatzeko, baina halako adierazpenekin bazirudien lehengo ideietara itzuli zirela. Masek eta langileriak iraultza egiteko armak erabili behar zituztela zioten troskistek, baina ez zuten oso garbi nola iritsi egoera



ETAk Bordelen egindako prentsaurrekoan zehatz-mehatz azaldu zituen Madrilgo atentatuaren nondik norakoak eta egiletzaren inguruko zalantzak argitu zituen.

horretara, ezta nola uztartu ETArekin atentatuak eta euren aldarrikapen politikoak: masa horiek armak hartzeko “gogo piztu” beharra eta “ekintzetan aurea hartzea”.

Kontraesanak kontraesan, orduko buruzagi troskistek 1973ko atentatuari sostengua eman zioten, hain justu hainbat urte geroago ETA zorrotz kritikatu izan duten horietako zenbaitek.


Testuinguruaren justifikazioa

Atentatuarekiko kriptiko baina akritiko azaldu ziren alderdi eta erakunde ugari. Karlismoak, 1973ko amaieran “indarkeria iraultzaileari” aldizkari osoa eskaini zion, atentatua aipatu gabe. UGT sindikatuak berriz, luze idatzi zuen erbestean zuen agerkari nagusian, Carreroren hilketa ulertarazteko: “Erregimenak gerra zibiletik mantendu nahi izan duen zatiketa eta gorrotoaren testuinguruan koka-

tu behar da, halabeharrez, Carrero Blancoren kontrako atentatua, ahaztu gabe erori den gizon hori tiranoak izendatu zuela, tirania mantentzeko bere heriotzatik harago. Horrela baino ezin daiteke neurtu gertaera hau, eta norberak epai dezala bere usteen arabera. Baina kontzientzia unibertsalean, aise antzeman daiteke erabateko ulermena egon dela”.

40 urte geroago, UGTk aipatzen zuen testuingurua nabarmen aldatu da, egungo ikuspegitik egiten diren azterketa politikoak eta historikoak baldintzatuz. Baina, egiari zor, horiek ziren orduko hainbat eragile politikoren jarrerak eta iritziak. Historia osoa egiteko, politikoki zuzenak izan ez daitezkeenak ere azaldu behar dira, besteak beste hobeto uler ditzagun jardun armatuen jarraipenak eta desbideraketak. ■





joxan Artze



- 1 Bizitzaren aldea dukegu heriotza
- 2 heriotzaren aldea dukegu bizitza

elkar www.elkarargitaletxea.com

bizi literatura

Errebisioa behar duen zerbitzu publikoa

Gipuzkoako gidariek sei hilabete daramatzate euren automobil, moto, furgoneta eta kamioiak errebisatzeko problemekin. Irungo eta Urnietako Ibilgailuen Azterketa Teknikoko (IAT) zentroak greban daude. Arrazoiak: Eusko Jaurlaritzaren esleipen publikoaren bidez duela 20 urtetik zerbitzua kudeatzen duen TÜV Rheinland enpresa alemaniarrek ez duela langileekin adostu nahi lan baldintzen markorik. Amaiezina dirudien greba baten historia da hau.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

EGUN BAKARREKO grebak motz geratzen direla uste dutenek badaukate protesta luzeagoetarako eskola: Urnietako eta Irungo IATko langileen bilera hau. Sei hilabete daramatzate lana utzirik. Bukaera eperik jarri gabe hasi zuten huelga eta ez du ematen zerbitzu publiko hori bere esku daukan TÜV Rheinland enpresak problema konpontzeko borondate handirik daukanik.

Espainiako Lan Erreformen mamua ikusi dute langileek atzean. Alegia, enpresak ez duela berretsi nahi euren baldintzak blindatuko lituzkeen akordioa, prekariora jotzeko kartak eskuan dauzkalako PPren Gobernuak indarrean jarri duen legediari esker.

Abenduaren 5eko eguerdia da. Hernaniko ELA sindikatuen egoitzan 30 bat lagun, beren kausa erakunde publikoetara nola eraman eztabaidatzen eta umore onean hala ere. Ketxus San Emeterio langile batzordeko lehenakariak darama bolantea: esplikatu duenez, udaletara joko dute; herriz herri euren eskariak ezagutzera eman nahi dituzte, erakunde lokaletatik Eusko Jaurlaritzarainoko bidea egin dezaten. EAEko Gobernuak gai honetan hartzen duen jarrera izan liteke giltza, hura izan baitzen enpresa pribatuei automobilak

aztertzeko zerbitzua kudeatzeko aukera zabaldu ziena 1993an. Eta bere esku dago zerbitzua zein baldintzatan esleitzen den erabakitzea.

Déjà vu

Sei hilabete, baina ez lehenengoak. 2010ean beste hainbeste egin zituzten greban eta urte hartako ekainaren 15ean negoziazio egun luze baten ostean sinatu zuten hitzarme-

Sei hilabete dira Irungo eta Urnietako IATko langileek greba hasi zutenetik. 2010ean beste hainbeste luzatu zen protestaren ondorioz lortu zuten akordioa berrestea eskatzen dute

na komiteak eta TÜV Rheinlandek. ETBren kamerek jaso zuten arratsalde urduri hartako koadroa: langileak zain Lan Harremanen Kontseiluak Donostiako Hondarribia kalean daukan bulegoaren kanpoan, zer gertatuko bertatik bertara jakin nahian. Eta azkenean berri onak, besarkadak, txaloak.

Biharamunean, gaur bilera egiten ari diren gela honetan bertan pankarta jarri zuten ELAko kideek, "lortu duzue, zorionak!". Akordioa

langileen asanbladan onartu ondoren hamaiketakoa jabez ospatu zuten irribarre txikiarekin, borroka luzearen zama gainean oraindik. "Gauzak izorratuta dauden garai hauetan lezioa eman diozue gizar-teari: borrokatuz lor daitekeela", esan zien sindikatuko kide batek.

Orduan hitzartutako akordioa da orain kolokan dagoena. Langileen baldintzak erregulatu zituzten lanuzteen ondoren, baita jardueraren kudeaketa zuzena eta zerbitzu publikoa egoki emateko kondizioak zehaztu ere. Soldata-eskalak erregularizatzea, pertsonal gehiago kontratatzea eta denek gutxiago lan egitea -35 ordu astean-; eta, batez ere, herritarrei EAEko zerbitzu-ordutegi zabalena eskaini ahal izatea, 7:30etatik 20:30ak arte. Mundu guztia ateratzen zen irabazten antza:

langileek euren baldintzak hobetuko zituzten eta zerbitzuaren erabiltzaileek, Gipuzkoako gidariek, erosotasun handiz pasa ahalko zuten errebisioa ia egun osoko ordutegiari esker.

Baina akordio horrek 2011. urtea bukatu arte balio zuen. Geroztik, enpresa ezetzean dago eta langileak gatazkan. Negoziatzeko modu berezi samarra erakutsi du TÜV Rheinlandek, izan ere, langileei idatziz hainbat proposamen egin dizkie, baita langileek onartu ere; baina



DANI BLANCO

Abenduaren 5ean hurbildu gara ELAK Hernanin dauzkan bulegoetara, Irungo eta Urnietako IATetako langileen egoeraren berri jasotzeko. Zerbitzua ahal bezain azkarren berriz eskaintzeko erakunde publikoen inplikazioa eskatzen dute.

akordioari autografoa botatzeko momentuan, atzera egin du kontzesiodun enpresak.

Hortik protesta: 2012an hiru egunetik batean ez zuten lanik egin, duela hiru urteko akordioa berri-tzearen alde. Aurten egun erdiz hustu dituzte lantokiak 65 alditan, ekainean greba luzeari ekin aurretik.

Etxean "gerrako ekonomia"

Bizi liteke mugarik gabeko greban? Nola? "Gerrako ekonomia" dela dio San Emeteriok, bilera bukatu ondoren hizketan. "600 euro inguruko erresistentzia-kutxa dauka sindikatuak. Horrekin biziraun deza-kezu eta erresistentzia behartzen zaitu. Denak gabilza etxean gura-soen laguntzarekin eta umeen jana-ria ahal den bezala ordaintzen".

Azterketa teknikoen etekin ekonomikoak

NOLA BANATZEN DIRA automobil gidariek azterketa teknikoa pasatzea-ren truke ordaintzen dituzten sosak? Zerbitzua kudeatzen duten enpresek kanon bat ordaintzen diote Eusko Jaurlaritzari, erabiltzaile bakoitzak ordaintzen duenaren %10. Urtero 570.000 azterketa pasatzen dira EAEn gutxi gorabehera, Ketxus San Emeteriok azaldu duenez.

32 milioi euroko fakturazioa daukate zerbitzua beren esku daukaten enpresek eta langileen kostua 12 milioi euro ingurukoa da. Irungo eta Urnietako IAT-tan, zehazki, normal lan egin zuten azken urtean 5 milioi eurotik gorako fakturazioa izan zuten. Langileen soldatak berriz, 2 milioi ingurukoak izan ziren.

Makinerian gastu handirik eskatzen ez duen zerbitzua izanda, atera litezke kontuak mota horretako zerbitzua kudeatzeak ematen dituen ira-baziak zenbaterainokoak diren.

Ainhua Quevedo greban ari den IATko langileetako bat da. Hamahiru urte daramatza bertan lanean eta bikotekidea langabezian dagoenez, erresistentzia-kutxa eta familiaren laguntza ditu sostengu bakar. Estualdi ekonomikoari enpresaren arreta falta gehitu behar zaio bere uestez: "Bost hilabetera iritsi arte ez dira hizketara etorri". Eta orduan ere ez

dute bilera-egutegirik adostu nahi izan, gero jakin ahal izan dugunez.

2010eko akordioa sinatzea lortu zutenetik liskarra etengabea izan dela dio Quevedok. Euskal Herriko IATentzat arduradun bat jarri zuen TÜV Rheinlandek eta berehala hasi zen neurriak hartzen hitzarmenari itsu eginez: langileak kaleratu dituzte; batzuk Irundik Urnietara lekuz

Dudaz beteriko esleipen publikoak EAEko IATetan

30 URTERAKO esleitu zitzaion TÜV Rheinlandi Gipuzkoako IATen zerbitzua 1993ko hondarrean. Baina 2009ko uztail bukaeran enpresak Jaurkitzaren komunikazio bat jaso zuen, esanez Espainiako Auzitegi Gorenak 2007ko abenduaren 28an emandako sententzia baten arabera kontzesioa bertan behera geratzen zela eta beste enpresa bati zegokiola zerbitzuaz arduratzea. Geroztik epaitegiaren pasilloetan dabil gaia, enpresaren helegitea eta 2010etik atzeratzen ari den erabaki judiziala medio.

Esleipenetako irregulartasunak kontu arrunt samarra dira EAEko ibilgailuen azterketa teknikoen zentroetan, esan liteke miatutako autoak adina orrialde pilatzen ari direla epaitegiaren zerbitzuak duela hogei urte lehiaketa publikora ateratzen zirenetik. Gasteizko eta Bergarako IATak bere esku zeuzkan Luybas enpresari begiratzea besterik ez dago: zerbitzua bere esku geratu zenetik lehiaketara aurkeztu ziren beste enpresak errekurtsioak jarri dituzte. Bi hamarkadako bataila judizialaren ondoren, aurtengo urriaren 30ean zerbitzua eskuz aldatu da, orain ITA Asua SL-ren esku dago zerbitzua.

Irun eta Urnietakoen kasuan badago arreta deitzen duen kontu bat: Eusko Jaurlaritzako funtzionario ohi batek, Javier Goldarazena, zerbitzua TÜV Rheinlandi esleitzearen aldeko txostena egin ondoren enpresa horretako koordinatzaile izaten bukatu zuen 2006an. *EIDiario.es* webgunean Zuriñe Andia kazetariak eman zuen aferaren berri aurtengo apirilean. Albistean kontatzen denez, Goldarazena egin zituen lehiaketa publikoaren lau balorazio teknikoaren dokumentuak eta gainera Industria Sailaren kontratazio mahaiak 1993an egin zituen bi bileretan parte hartu zuen, urriaren 27an eta azaroaren 5ean. Bigarren bileran horretan onartu zen TÜV Rheinland arduratuko zela Gipuzkoako bi IATez hurrengo 30 urteetan.

Goldarazena gaiari buruz emandako azalpenak ere jaso zituen *EIDiario.es*ek: “Beste batzuetan ere galdetu didate irregularra ote zen. Ba ote da hamahiru urtez lanean egon ondoren? [TÜV Rheinlandek] lanpostua eskaini zidan lege kontuetan espezialista nahi zuelako. Komeni zitzaidan. [Gobernuan] ez nuen etorkizunik ikusten. Baldintza hobeak eskaintzen dizkirate eta banoa”.

aldatu, nahiz eta horrelakorik egingo ez zutela adostuta egon; eta enpresako arduradunak langileekin daukan tratua “oso hotza” dela dio.

Madriren 21 lagun kalera

Gipuzkoako IATak ez dira TÜV Rheinlanden esku daukan bakarrak. Nafarroan ibilgailuen azterketa teknika egiten duten hiru zentro enpresa beraren esku daude, Doneztebekoa, Arbizukoa eta Berriozarkoa. Espainiako Estatuan guztira mota honetako hama-

zazpi zerbitzu kontrolatzen ditu, tartean Madrilgo Erkidegoko lau.

“Gerrako ekonomia” bizi dute langileek etxean: ELA sindikatuaren erresistentzia-kutxa eta bakoitzak lor dezakeen laguntza familiarra dira haien sostengu ekonomikoa azken urte erdian

Han 21 lagun kaleratu dituzte eta gainontzeko langile guztien

baldintzak (89 lagunena) aldatu ere bai San Emeteriok azaldu duenez. Erabakia alde bakarrekoa izan da. “Ordu gehiago sartuko dituzte, igande goizetan ere lanera joan beharko dute agian”. Ez hori bakarrik: “Baldintza aldaketa horiek sartu dituzte, baina legeak dio hiru hilabete barru berriz aldatu ditzaketela. Madriren orain hasi dira mobilizatzen, baina ez daukatenez guk daukagunaren antzeko ezer lehendik hitzartuta, ezin jakin hiru hilabete barru zer”.





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Enpresak bere asmoen berri emango balu errazagoa izango litza-tekeela uste du komiteko ordezkariak. Zenbait mediorekin gosari informatiboak egin dituela-eta kexu da: “Prentsan gauza asko esan bai, baina benetan ez dute konprometitu nahi”.

Espainiako Lan Erreformatik dio lantoki bakoitzean adosten den konbenioak lehentasun aplikatiboa daukala Estatuko hitzarmenaren gainetik. Zergatik ez bihurtu aurreko greba amaitzean sinatutakoa euren esparruko lan baldintzen marko? Zer bilatzen du enpresak horren orde? Hori da greban dauden langileek galdetzen dutena, erantzunik aurkitu gabe oraingoz.

Auto pilaketak Nafarroako zentroetan

Bitartean, eusko gidariak grebaren ondorioak nabaritzen ari dira: ekainetik tarteka agertzen da hedabideetan Doneztebeko eta Arbizuko IAT-tan gertatzen ari diren auto pilaketaren albisteak. Gipuzkoan errebisia egin ezinda, Nafarroako zen-

troetara jo dute askok hilabete hauetan. Eta horrek ezohiko argazkiak ateratzeko parada eman du, prestatuta zeudena baino lan bolumen askoz handiagoari aurre egin behar izan baitiote Nafarroako IAT zentroek.

Bi ordu itxaron behar izan zituzten zenbait autok uztailan, zirkulatzeko derrigorrezkoa den pegatina lortu ahal izateko. “Gainezka” zeudela adierazi zion Arbizuko zentroko langile batek *Diario de Navarra* egunkariari.

Grebalariak jabetzen dira ondorio horietaz, baina argi dute ez dela beraien kapritxo sortutako egoera. Euren problematikaz informatzeko prestatutako txostenean diotenez, “milaka gipuzkoarren eskubideei kalte egiten” ari zaie kontzesiodun enpresa, zerbitzua behar bezala emateko baldintzak ez jartzeagatik. Eta EAEko administrazioaren eskubideak ere urratzen dituela uste dute, Jaurilaritzak ez baititu azken sei hilabeteetan kobratu azterketa tekniko bakoitzarengatik zegozkion kanonak.



Ketxus San Emeterio, IATko langile batzordeko ordezkaria.

Jaurilaritzaren esku

Hala ere “enpresa eroso dago”, San Emeterioren ustez. “Nafarroako IATak bere esku daude eta Gipuzkoan egiten ari ez garen azterketa

EGIN ZAITEZ **HARPIDEDUN**
ETA GUK **ZURI ERE OPARI**
SU TA GAR TALDEAREN
‘BIZIRIK GAUDE’
DISKO BERRIA

Tel.: 943 457 250
harpidetza@gaztezulo.com

gaztezulo com
HI ETA HIRE MUNDUAK

**BEHIN OPARITU
11 ALDIZ JASO
URTE OSOAN GOZATZEKO!**

11 ALDIZKARI JASOKO DITU(ZU) ETXEAN.
MUSIKA, ZINEA, SEXUA, LITERATURA, INTERNET,
ARTE ESZENIKOAK, KIROLA, ARGAZKILARITZA...

**HI ETA HIRE
20€
URTEAN
MUNDUAK**

TERMOMETROA • IAT GREBAN

HUELGAITVGIPUZKOA.BLOGSPOT.COM



G.B.

HUELGAITVGIPUZKOA.BLOGSPOT.COM



Sei hilabete greban, baina ez geldirik: IATetako langileek protesta asko egin dituzte lanuzteari ekin ziotenetik. Goian, ezkerrean, TÜV Rheinlanden esku dagoen IAT zentro baten aurrean. Eskuinean, IATetako langile bat ELAren egoitzan pankartan idazten, greban 170 egun bete zituztela-eta. Lan ikuskaritzaren eta Eusko Jaurlaritzaren egoitzen atarietan egindako kontzentrazioak ikus daitezke horren azpian eta behean, ezkerrean, grebak eragindako Doneztebeko zentroko auto pilaketa aurtengo uztailean.

batzuk horietan egiten ditu. Dirutan ez da hainbeste galtzen ari”.

Lau aldiz bakarrik bildu da langileekin grebak dirauen sei hilabeteetan. Langile batzordeko ordezkariak uste du administrazioak estutzen duen arte ez dela mugituko. Eta Jaurlaritzak badu nondik heldu, bere ustez: “Esleipenaren baldintzak biltzen dituen dokumentua daukate epe eta ordu jakin batzuk zehazten dituen. Tartean esaten da, kontzesioa bertan behera gertatzen dela zazpi egunetan ez baldin badu zerbitzua behar bezala eskaintzen”.

Antzera esleituta dauden beste zerbitzu publikoetan horrelako

“Enpresa eroso dago. Nafarroako IATak bere esku daude eta Gipuzkoan egiten ari ez garen azterketa batzuk horietan egiten ditu. Dirutan ez da hainbeste galtzen ari”

**Ketxus San Emeterio,
IATeko enpresa batzordea**

gatazkak hainbeste denboraz konpondu gabe egotea onartezina izango litzatekeela gaineratu du: adibidez, herri eta hirietako hondakinak

biltzen dituzten enpresei ez litzaieke utziko pasatzen urte erdiz zerbitzurik ez eskaintzea. Diferentzia, herritarrek egunero ateratzen dutela hondakinen kuboa eta aldiz IATetik gehienez urtean behin baino ez direla pasatzen. Horretarako Gipuzkoatik Nafarroara joan beharra munduko gauzarik erosoena ez den arren, izugarritzko kezarik ere ez du eragiten. “Herritarrek, langileek eta administrazioak derri-

gortu beharko dugu enpresa kontratuan hartu zituen konpromisoak bete ditzan”.



Ramon Labaien, ezer baino lehen euskaltzalea

GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



Ramon Labaien joan den astean hil zen 85 urte zituela.

RAMON LABAIEN abenduaren 13 gauean hil zen 85 urte zituela. Politika eta kultura gizona izan zen, eta batik bat euskararen bultzatzaile amorratua.

Tolosan (Gipuzkoa) jaio zen 1928an. Urte gutxiren buruan, 1936an gerra piztearekin batera, Lapurdira egin zuen hanka Labaien-Andonaegi sendiak. Ramonen aita Antonio Maria Labaien zen, Tolosako alkatea EAJ alderdiaren ordezkari gisa. 1944an itzuli ziren Gipuzkoara.

Labaienek Madrilen Kimika ikasketak egin zituen eta orduz geroztik alor askotan aritu zen. Kontserba industrian egin zuen lan, Donostiako Londres hotelaren zuzendari izan zen eta Aurrezki Kutxa Munizipaleko presidentea ere bai. Carlos Garaikoetxeak Eusko Jaurlaritzara eraman zuen, eta frankismo osteko lehenengo Kultura sailburua izan zen. 1980tik 1983ra bitartean jardun zuen kargu hartan. Aurtengo udaberrian *Jakinen* Imanol Murua Uriak egindako elkarrizketan zioenez, Garaikoe-txeak Herrizaingo sailburu izatea proposatu zion, baina ezezkoa eman zuen. Kultura Sailaren buru izatea baliatu zuen EITB sortzeko. Euskarazko telebistaren eta irratia-ren bultzatzaile nagusietakoa izan zen Labaien. *Jakinen* adierazitakoa-ren arabera, ez zekiten gobernuan zenbat denbora iraungo zuten eta presazkoa zen euskarazko telebista abian jartzea, “ez geunden ziur telebistarekin euskarak iraungo zuen, baina telebistarik gabe ez zuela iraungo ziurtasun osoa geneukan”. Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) ere, sailburu zenean sortu zuten; baita Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Antzerti eta Euskararen Legea ere.

1983tik 1987ra Donostiako alkate izan zen.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Mandela eta gure apartheid partikularra

NELSON MANDELAREN heriotzak mundu osoko egunkarietan orrialde ugari eta telebista kateetan minutu asko hartu zituen. Ikusi dugu politikari eta gobernu askoren zinismo eta hipokresia ikaragarria izan dela, Mandelaren jokabidearen gutziz kontrakoarekin, bere irudia bereganatu nahi izan baitute. Euretako bat balitz bezala. Eta Mandela ez zen euretako bat izan. Berdintasunaren aldeko eta apartheidaren kontrako ekintzailea izan zen, eta horregatik urte askotako kartzela zigorra jasan zuen. Mandelak Hegoafrikako apartheidaren kontra egin zuen. Euskal Herrian badugu gurea, eta borroka haren kontra borrokatu behar dugu.

Gure apartheid partikularrak, ezberdintasun eta bazterketa sozial honek, aurpegi asko ditu. Euskal Herrian lo egiteko etxerik ez duten 3.000 lagun daude –2013an Bizkaian sei pertsona hil dira kalean etxerik gabe zeudela–. Langabe-tuak 203.000tik gora. Gazteen lan-gabeziak %42 gainditu du. Emakumeen urteko soldata gizonena baino %27 txikiagoa da. 62.000 lagunek behar dute Diru-sarrerak

Bermatzeko Errenta eta beste familia askok gizarte-larrialdiko laguntza jasotzen dute. Ehunka etxegabetu daude hipoteka ezin dutelako ordaindu. EAEko elikagai bankuek 98.000 herritarri ematen diete zerbitzua. Milaka immigrante guetoetan pilatuta bizi dira. Milaka dira 500 euroekin bizirautean duten pentsionistak.

Apartheid horren kontra borrokatzea, berdintasunaren alde borrokatzea da, eta beraz, ezberdintasun ekonomiko, sozial eta laboral horiek ahalbidetzen dituen kapitalismoaren kontra. Ongizate estatuaren desegitearen kontra egitea da, pobreak diskriminatzen dituen iruzur fiskalaren kontra. Kapitalismoaren kudeatzaile diren gobernuek inposatzen dituzten neurri antisozialen kontra borrokatzea da. Horietako gobernu asko Mandelari egindako agurrean izan ziren eta lider hegoafrikarraren aldeko hitzak egin zituzten. Mandelak borrokatu zuen apartheid babesten dute hain justu.

Juan Mari
Arregi





Independentziantz...

BAI-BAI edo bai-ez, horiek dira Kataluniako erreferendumak ahalbidetzen dituen aukera nagusiak. Badira gehiago ere, baina funtsean horietakoren bat aterako litzateke erreferenduma gaur egingo balitz. Eta hemen-dik hamaika hilabetera?

Hemendik hamaika hilabetera ez da erreferendumik egingo. Gaitza da iragartzea politikan zer gertatuko den edo zer ez, gehienetan huts egiten baita, baina kasu honetan nahiko segurua da erreferenduma ez dela egingo. Bitxia bada ere, Kataluniako Gobernuak jakinaren gainean deitu du egingo ez den erreferendum bat. Horretan bat datoz Mariano Rajoy eta Artur Mas. Funtsean, Kataluniako mugimendu soberanistak plebisitu hauteskundeetarako kanpaina luze bat jarri du abian. Eta independentismoaren hausporik onena, Espainiako Gobernuaren ezezko borobila da.

Soberanismoak badaki egindako galdera bikoitza nahasgarria dela, baina badaki, halaber, bere batasuna mantentzeko formula indartsua dela. Areago, Madrilgo Gobernuak Espainiaren egituratze politikoa sakonetik eraldatzeko bidea abiarazten ez badu, erreferenduma egin gabe ere *bai-ez* hori *bai-bai* bihurtuko da, independentista ez den soberanismoari independentzia besterik geratuko ez zaiolako.

Baina nola heldu independentziara erreferenduma egingo ez bada? Hipotesia honakoa litzateke: Kataluniako Gobernuak erreferenduma deitzen du 2014ko azaroaren 9rako. Madrilek dio ez dela egingo eta hala izango da, arrazoi desberdinengatik bada ere, hala dutelako aurreikusia alde biek. Ondoren, oraingo Kataluniako Gobernua desegin, hauteskundeak



aurreratu eta horiek izaera plebisitarioa izango lukete. Noiz? Gaitza da zehaztea, baina ez dirudi behin Kongresuak erreferenduma debekatuta Masen Gobernuak asko iraungo lukeenik. Ez dago oraindik argi eskaintza soberanista nola antolatuko litzatekeen, baina argi dago gehiengo handia izango lukeela. Espainiako Gobernuak itxia jarraituko lukeenez, Kataluniako gobernu berriak independentzia aldarrikatuko luke. Sinesgaitza dirudi, baina hipotesi nagusietako bat hori da.

Eta Espainiak, bitartean, ez luke ezer egingo? Ba seguruenik bai, baina horretarako Kataluniako Gobernuak legez kanpoko urrats handi bat eman beharko luke, eta une hori ez da oraindik iritsi, eta seguruenik ez litzateke iritsiko gobernu berriaren independentzia aldarrikapen hori gauzatu arte.

Orain kontua da ea noiz aurreratuko liratekeen hauteskundeak. Urtarrilaren 15ean eztabaidatuko da Kataluniako Legebiltzarrean Espainiako Kongresuari egin behar zaion erreferendumerako galdera eskaera. Ondoren, Kataluniako alderdiek eskaera bideratu beharko dute Kongresuan eta otsailean edo martxoan, hark ezezko argia emango luke.

Aldi berean, Espainiako Gobernuak, erreferendum deiarren aurkako helegitea jarriko du Auzitegi Konstituzionalean eta hark baliogabetu egingo du Masen Gobernuaren deia. 2014rako aurrekontuetan erreferendumerako aurreikusitako bost milioi euroko atala ere baliogabetuko da.

Hala ere, horiek erabaki txikiak dira, erabaki handiak Kataluniako Gobernuak independentzia aldarrikatzean etorriko lirateke. Espainiako Gobernuak Konstituzioaren 155 artikulua jarriko luke indarrean eta Kataluniako gobernu autonomia bere esku hartu. Baina nola hartzen da gobernu bat edo autonomia oso baten agintea egun batetik bestera? Nori egingo liokete kasu milaka funtzionariok eta ehunka mila herritarrek? Eta zer esango luke nazioarteak, Kataluniako Legebiltzarrearen gehiengo argiak independentzia aldarrikatzean, Espainiako Gobernuak ezer negoziatu nahi ez duenean? Zilegitasun borroka horretan, sinesgarria ote Guardia Zibila edo armadaren parte hartzea?


Hori guztia hipotesi bat besterik ez da, jakina, sinestea ere gaitza dirudiena. Baina norbaitek pentsatuko zuen 2012ko irailaren 10ean CiUren gobernu batek urtebete geroago autodeterminazio erreferendum bat deituko zuela?

Eta hipotesietan legoke, baita ere, historian ohikoagoa den beste hori, Espainiaren neurri zorrotzen ondorioz edo independentismoa zatitzen delako Katalunian soberanismoak ez asmatzea modu bateratuan erantzuten. Bai, ate asko irekita dira oraindik, baina independentziarena ere bai. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat



Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

1



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

2



Hala bedi irratia

30 urte
kolpez kolpe
4 liburu/DVD opari

Hala Bedi Irratia
Bueno Monreal 16, behea
Gasteiz, ARABA

www.halabedi.org

3



Damba Hautsi... eta izan zaitez zu

Miren Amurizaren
kolaborazioarekin!

5 CD opari

www.damba.info

4



Egutegia 2014

2 ale opari

www.argia.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2394. Argia)

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

Barakaldo

- Karmelo Busturia Jimeno (Donostia)
- Gotzon Garitaonaindia Euskategia (Bermeo)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Xabier Unanue Munduate (Donostia)
- Eneko Iriondo Eguren (Legazpi)
- Ione Gorostazu Etxebeste (Berastegi)

ARGIA EGUTEGIA 2014

- Ixabel Jauregi Alberdi (Azkoitia)
- Josu Iztueta Azkue (Tolosa)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Joseba Balerdi Zabala (Durango)
- Larraitz Trojaola Berezibar (Arrasate)
- Arantxa Garmendia Lasa (Zaldibia)

HALA BEDI IRRATIA 30 urte CDa

- Amara Berri Aek Euskategia (Donostia)
- Mikel Garmendia Aizpuru (Bilbo)
- Lourdes Iruretagoiena Laka (Zarautz)
- Stee-Eilas (Gasteiz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



SDB

SORTUKO DIRA BESTEAK 2013

MIKEL URDANGARIN PETTI
OLATZ PRAT **ESTITXU** PINATXO
ALEX SARDUI **MIXEL** DUCAU
HARKAITZ CANO **AMETS** ARZALLUS

Gonbidatu berezia:

DULCE PONTES



ABENDUAK 22 DONOSTIA
KURSAAL-19:00etan

Laguntzaileak:

an@a
komunikazio gaitasuna

argia

Salmenta:
Victoria Eugenia Antzokia
www.kufxasarrak.net

